# Garapenerako *Hezkuntzaren*

## lan koadernoa



2004ko urtarrila

**EDIZIOA:** UNESCO Etxea.

**KOORDINAZIOA:** Itziar Caballero González.

**AHOLKULARITZA:** Hegoaren Garapenerako Hezkuntza taldea, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo, Alboan Fundazioa, Natividad Ovelleiro Sacristán eta Mireia Espiau Idoiaga.

**KOLABORATZAILEAK:** Euskadiko GGKearen Garapenerako Hezkuntza-Sentsibilizazio taldea, Amalia Viesca Lobatón, Kristina Fernández Eskorza y Gonzalo Romero de Loresecha.

**TESTUEN ETA EDUKIAREN BERRIKUSKETA:** Gema Celorio Díaz.

**ITZULPENA:** Bakun, S. L.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Servicios Redaccionales Bilbaínos, S. L. (SRB)

**INPRIMAZIOA ETA ENKODERNAZIOA:** Imprenta Garcinuño.

Depósito Legal: BI-¿?

**KOORDINATZEN DUTE:**

unesco etxea
centro unesco euskal herria
centre unesco pays basque
unesco centre basque country

COORDINADORA DE O.N.G.Ds
DE LA COMUNIDAD AUTONOMA VASCA
EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOko
G.G.K.Een KOORDINAKUNDEA

**DIRUZ LAGUNTZEN DU:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Cooperación al Desarrollo

**BABEZTEN DUTE:**

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

IRIZAR

## El sombrero de Tío Nacho

El tío Nacho tenía un sombrero roto que ya ni para soplarse le servía y dijo tío Nacho:

– *Voy a cambiar este sombrero viejo.* Y lo aventó al basurero. En eso pasó su comadre Chola.

– *¡Eh!* –dijo– *¡el sombrero de tío Nacho!* –y lo recogió, lo envolvió en un papel y se lo llevó a su comadre.

– *Se le cayó su sombrero, ¡tío Nacho! Aquí se lo traigo.*

– *Dios se lo pague, comadre,* –dijo tío Nacho.

Cogió el sombrero roto y se fue a botarlo lejos, al arroyo. Cuando volvía comenzó a llover y viene la correntada y arrastra el sombrero.

– *¡Ve!* –gritó tío Chente–. *¡Allá se llevan las aguas el sombrero de tío Nacho! ¡Corré, muchacho, andá a recogelo!*

Y corren y recogen y se van donde tío Nacho.

– *Tío Nacho, figúrese que ya se le arrastraban las aguas el sombrero. Aquí se lo traemos.*

– *Gracias, muchachos, gracias. Y salúdenme a tío Chente* –dijo tío Nacho.

– *Ahora sí que me jodió este sombrero* –pensó tío Nacho–, y lo voló sobre un taburete. Al rato pasó un pobre pidiendo y tío Nacho le dice: *Llévate ese sombrero, por lo menos te cubre el sol.*

Y se fue el hombre, pero todo es que lo vieran los del barrio y comienzan a gritar: *¡Ladrón, ladrón, se le lleva robado el sombrero a tío Nacho!*

Y van y lo agarran y lo sopapean y le quitan el sombrero y llegan todos corriendo: *Figúrese tío Nacho que un ladrón se le llevaba el sombrero! ¡Aquí se lo traemos!*

– *¡Gracias! ¡Gracias!* –decía tío Nacho, pero ya estaba que reventaba. Apenas se fueron los vecinos cogió su sombrero nuevo y lo voló al basurero y se puso el viejo. Pero el sombrero nuevo nadie se lo devolvió.

Cuiscoma auzoan jasoa, Granada (Nikaragua).



Geure sinismenak zalantzan jartzea, gure jarduteak kritikoki ulertzea, erabaki hartzea demokratizatzea, dibertsitatea ezaguera iturritzat hartzea, mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzeko gizarte eraldaketaren alde konpromisoz aritzea... Prozesu horiek jarreren eta balioen aldaketa positiboa eskatzen dute. Aldaketa hori pertsonengan hasi, eta tokian tokikotik igaro ondoren, mundu mailakora helduko da. Bide horrek erronka pertsonalak eta sozialak dakartza, baina ez hori bakarrik: erronka ere bada, haztera bultzatzen duen, hazten laguntzen duen erronka.

Gure txapel zaharrak uztea ez da batere erraza, baina, ez ditzagun txapel berriak bota! Onar dezagun erronka!

# AURKIBIDEA

**AURKEZPENA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **6. or.**

**1. ESPARRU TEORIKOA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **8. or.**

**2. METODOLOGIA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **19. or.**

**3. DIAGNOSTIKOA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **25. or.**

**4. HOBETZEKO PROPOSAMENAK** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **42. or.**

**5. ONDORIOAK** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **50. or.**

**6. BIBLIOGRAFIA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **54. or.**

**7. ERANSKINAK** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **58. or.**

- 1. Eranskina: GGKEei egindako inkesta. (58. or.)
- 2. Eranskina: EAEko GGKE koordinakundean eta Elkarganatzen Plataforman federatutako GGKEen zerrenda. (61. or.)
- 3. Eranskina: Ikastetxeei egindako elkarrizketa. (63. or.)
- 4. Eranskina: Elkarrizketatu ziren ikastetxeen zerrenda. (68. or.)
- 5. Eranskina: Diagnostiko eztabaida taldeen lan eskema. (70. or.)
- 6. Eranskina: Eztabaida foroaren lan eskema. (72. or.)
- 7. Eranskina: Berritzeguneei egindako elkarrizketa. (74. or.)
- 8. Eranskina: Berritzeguneen zerrenda EAEn. (77. or.)
- 9. Eranskina: Eztabaida taldearen lan eskema, hobetze proposamenetarako. (78. or.)

# Aurkezpena

Irakaskuntza/ikaskuntza prozesua ulertzeko eta horretan jarduteko moduaren eraldaketan oinarritzen da Garapenerako Hezkuntza. Eraldaketa horren helburua mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzea da, pertsona guztiek baliabideak eta boterea lortzeko aukera izango duten mundua lortzea, alegia. Iparraldearen eta Hegoaldearen harremanak kontuan hartzen dituen ikuspegia sartu nahi du hezkuntza maila guztietan, konpromisoa sustatuko duen ikuspegia, eta, halabeharrez, konpromisoko ekintza ekarriko duena.

EAEko gero eta ikastetxe gehiagok hainbat ekintza egiten dituzte Garapenerako Hezkuntza hezkuntza eredu modura ezartzea errazago izan dadin. Bestalde, gero eta GGKE gehiagok hezkuntza formala ekintza ildo nagusienetarikotzat jotzen dute, eta hezkuntza formalaren jarduteak eta ikuspegiak kritikoki interpretatzea dute helburu.



Dena den, eta azken urteotan bultzada handia izan badu ere, Garapenerako Hezkuntzak, ikastetxeetako plangintzaren baitan, bigarren mailan egoten jarraitzen du. Askotan, noizbehinka soilik erabiltzen dute, edo, bestela, ildoak bakarka aurkezten dira, bereizita, bata bestearekin lotu gabe. Eta alderantziz behar luke: Garapenerako Hezkuntza hezteko eredu berezia da, ekintzak sortutakoa eta ekintza helburu duena, jarraitua eta etengabea; curriculumaren zehar-lerroa da, eta hezkuntzaren maila eta elementu guztietan du eragina.

Zalantzarik gabe, beharrezkoa da balioen hezkuntzan (hezkuntza kritikoa eta buru jabetzea sustatzen duena) interesa duten eragileen arteko aliantza bat. Izan ere, sakontzea, eztabaida teorikoa eta biltzeko guneak eta plataformak eskatzen ditu.

Azken urteotan hainbat ikerketa egin dira zenbait lekutan, GHren egoerari buruzko oinarrizko ildoak adosteko, eta GHren egoera nola hobetu daitekeen aztertzeko. Ikerketa horien artean, hauek dira nabarmenenak: *Informe investigación sobre la Educación para el desarrollo en la Educación Secundaria* (Nafarroako GGKEen koordinakundea, amaitzeke); *Educación para el Desarrollo en la Educación Primaria* (Nafarroako Munduko Medikuak, 2001); *Una mirada hacia el futuro. Panorama actual y desafíos de la educación para el desarrollo en las ONGD de la Coordinadora* ikerketa (Estatu mailako GGKEen koordinakundearen Garapenerako Hezkuntzarako batzordea, 2000); eta *La Educación para el Desarrollo y las administraciones públicas españolas. Informe a la Oficina de Planificación y Evaluación* ikerlana (Pilar Baselgak eta Gabriel Ferrerok koordinatutakoa, 2000).

Orain aurkezten dugun ikerlana egiteko, urte eta erdian zehar, ondorengo erakunde hauek aritu dira elkarlanean: UNESCO Etxea, Sentsibilizazioaren eta Garapenerako Hezkuntzaren aldeko Bizkaiko taldea (EAEko GGKEen koordinakundea), ikastetxeak, GGKEak eta Berritzeguneak. Ekimen horrek behar jakin bati erantzuten dio: EAEn Garapenerako Hezkuntzaren alde lanean diharduten hainbat eragilek Garapenerako Hezkuntzaren diagnostiko bat egiteko beharra zegoela adierazi zuten, horretan zerikusia duten guztien partaidetzaz. Diagnostikoaren helburua gai horren inguruan egiten ari diren ekintzen egungo egoera ezagutzea da, horren arabera, eta estrategiak elkarrekin bultzatuz, Garapenerako Hezkuntzaren egoera hobetzeko.

# *Kapitulu 1.* Esparru teorikoa

Atal honen helburua ez da hausnarketa teoriko sakona egitea, Garapenerako Hezkuntza kontzeptuari buruzko zenbait ideia eta eduki biltzea baizik. Horretarako, honako gai hauek aztertuko dira:

- GH kontzeptua ulertzeko modua, lan hau egiteko oinarria,
- kontzeptuaren oinarri diren iturri teorikoak,
- GHren helburuak,
- GHren bilakaera historikoa,
- GHren edukiak,
- hezkuntza formalak GHri ekarri dizkion erronkak eta zailtasunak.

## 1.1. Nola ulertu dugu Garapenerako Hezkuntza?



Gaur egun badira GH[1] ulertzeko bi interpretazio nagusi. Horietako batek, ikuspegi mugatua du: GH Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanetan oinarritzen den hezkuntza da. Besteak, berriz, ikuspegi zabalagoa du. GH hezkuntza osotzat hartzen du, eta hainbat gai bilduko lituzke: hezkidetza, kulturarteko hezkuntza, bakerako eta elkartasunerako hezkuntza, ingurumen hezkuntza, etab.

[1] Greig, S.; Pike, G. y Shelby, D. (1991) y Eizaguirre, M. (2000).

Azterlan hau egiteko, bigarren ikuspegian oinarritu gara. Hau da:

"Ez dago Garapenerako Hezkuntzaren definizio bakarra, esklusiboa. Kontzeptua osatzen duten bi hitzak [hezkuntza eta garapena] era desberdinetan uler daitezke; izan ere, horien esanahia lekuaren eta garaiaren arabera aldatzen da. [...] Gure ustez, Garapenerako Hezkuntza Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanei buruzko hausnarketa, analisia eta gogoeta kritikoa sorraraz dezakeen prozesu dinamikoa da. Garapenerako Hezkuntzaren helburua hau da: pertsonek eta taldeek egoera jakin batzuei aurre egiteko moduak eta horiekiko dituzten jokabideak hobetzea. Bestalde, Garapenerako Hezkuntzak gaur egungo gure ekintzek epe luzean izango dituzten ondorioei buruzko hausnarketa bultzatu nahi du. [...] Jarrerak eta balioak era positiboan aldatu nahi ditu hezkuntza horrek. Aldaketa horiekin mundu bidezkoagoa lortzea da helburua, pertsona guztiek boterea eta baliabideak eskuratzeko aukera berdinak izango dituen mundua sortzea, alegia."[2]

GHk, beraz, etengabe aldatzen ari den prozesu dinamikoa denez, esparru guztiak hartzen ditu: bai tokian tokikoak, bai mundukoak. Esparru horien guztien arteko erlazioa azpimarratzen du, eta eremu pertsonalean, tokikoan, nazionalean eta nazioartekoan eragiten du.[3] Garapenerako Hezkuntzak pertsonen, taldeen eta komunitateen osoko prestakuntza dakar, esperimentazio sozio-afektiboaren bidez. Horrekin guztiarekin hau lortzen da: mundua ikuspegi kritikoz ulertzea, eta desberdintasunak bere horretan onartzen dituzten jarrerak eta jarduteak sortzea. Desberdintasuna, ondorioz, errealitatearen osagai natural bihurtzen da, eta aukera bat, hazteko modu bat da. GHk, bi eragin eremu horiekin —kognitiboa eta konduktuala—, gizarte eraldaketa bultzatu nahi du, mundu bidezkoagoa eta zuzenagoa lortzeko.

"GHren arabera, hezkuntza prozesu elkarreragilea da, pertsonen osoko prestakuntza lortzeko. Hezkuntza, beraz, dinamikoa da eta partehartze aktiboa eta sortzailea bultzatu nahi du, konpromisoaren eta ekintza oinarri dituela, munduan aberastasuna eta boterea oso era desberdinean banatuta daudela ohar gaitezen. Eta horretaz jabetuta, horren kausak eta ondorioak aztertu ondoren, bakoitzak egitura bidezkoagoak lortzearen alde egin behar ditugun ahaleginak zernolakoak diren jakin dezagun."[4]



[2] Polygone, Garapenerako eta Herri Hezkuntzarako Hezkuntzaren aldeko Nazioarteko Sarea (www.webpolygone.net)
[3] Eizaguirre, M., *Educación para el Desarrollo en Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Hegoa-Icaria, Bartzelona, 2000.
[4] Argibay, M., Celorio, G. y Celorio, JJ.: *Educación para el Desarrollo. El espacio olvidado de la cooperación*, Hegoa, Gasteiz, 1997.

## 1.2. Garapenerako Hezkuntzaren iturri teorikoak

GHk errealitate jakin bat du abiapuntu; eta errealitate hori biltzen eta azaltzen duten egoera orokorragoekin alderatuta aztertzen du. Hezkuntza hori honelakoa da[5]:

- Garapenaren aldekoa da: pertsonak beren osotasunean prestatzen ditu, errealitatea kritikoki ulertu eta aztertu dezaten, eta errealitate hori eraldatzearen alde lan egin.
- Garapenari buruzkoa da: desberdintasunen kausak eta ondorioak aztertzen ditu, baita garapena ulertzeko dauden erak ere.
- Garapena da: jardute aktiboa eta sortzailea eragiten du. Hezkuntza askatzailea da hori, irakaskuntza/ikaskuntza prozesu elkarreragile eta elkarrekikotik abiatuz.

GHren iturri teoriko eta metodologiko nagusiak korronte hauetan aurki ditzakegu:

- Herri Hezkuntzaren korrontea (Paulo Freire),
- Pedagogia kritikoa (Giroux, Apple, McLaren),
- Ikaskuntzaren eredu konstruktibista (Piaget, Vigotsky, Luria, Ausubel, Novak, Bruner),
- Partaidetzako ikerketa/ekintza eredua (Lewin, Carr, Kemmis).

## 1.3. Garapenerako Hezkuntzaren helburuak[6]

Oro har, hauek dira Garapenerako Hezkuntzaren helburu nagusiak:

- Gure bizitzen eta munduko beste pertsona batzuen bizitzen arteko loturak ulertzea. Horretarako, kontzientzia sistemikoa eta ikuspegi zabalekoa bultzatzen da, gure gaitasunen eta ahalmenen ikuspegi holistikoa lortzeko, mundua ulertzeko edo munduan aritzeko gureaz bestelako moduekiko irekiagoak izateko.
- Pobrezia, desberdintasunak eta zapalkuntza eragiten duten kausak eta horien ondorioak gehiago ezagutzea, norbanakoon bizitzak baldintzatzen dituzten heinean.
- Norberaren estimua areagotzen duten balioak, jarrerak eta trebetasunak indartzea, pertsonak bere ekintzekiko ardura handiagoa izan dezan. Bakarka eta taldeka egiten diren aukerek mundu osoan eragina dutela —gaur egun eta etorkizunean— konturatzea.



[5] Idem 4. nota.

[6] Iturri nagusiak: Pike, G., Selvy, D.: *Global teacher, global learner, Hodder and Stoughton, Londres, 1994; Argibay, M., Celorio, G., Celorio, JJ.: Educación para el Desarrollo. El espacio olvidado de la cooperación*, Hegoa, Gasteiz, 1997.

• Pertsonei eta taldeei baliabideak eta tresnak ematea —kognitiboak, afektiboak eta jarrerazkoak— errealitatean eragina izan dezaten, hori eraldatzeko.

• Giza garapen jasangarria bultzatzea pertsonengan eragina duten hiru mailetan: norbanakoarengan, komunitatean nahiz tokian-tokian eta nazioartean.

## 1.4. Garapenerako Hezkuntzaren bilakaera

GHk izaera dinamikoa duela azpimarratu izan da beti. Izan ere, kontzeptu hau ulertzeko eta gauzatzeko modua, helburuak, aurrera eramaten duten ekintzaileak eta osatzen duten edukiak aldatu egiten dira, lekuaren eta garaiaren arabera. Garapenerako Hezkuntzaren historia erabat lotuta dago beste zenbait kontzepturen bilakaerarekin: garapenarekin, nazioarteko lankidetzarekin, eta Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak ulertzeko moduarekin.

Ondoren, kontzeptu horren bilakaeraren hiru aldi esanguratsuenak aurkezten ditugu labur-labur[7]. Aldi horiek segidan azalduko dira; halere, horrek ez du esan nahi kasu guztietan aldi baten atzetik hurrengoa nagusitu denik. Kasu batzuetan, horrela izan da, baina beste kasu batzuetan, eredu bat baino gehiago erabili izan dira aldi berean. Izan ere, eredu bat ala beste aukeratu, hezkuntza eragileek eredu batekiko ideiekin duten adostasun mailaren araberakoa izango da.

### 1. aldia: GH Hegoaldeari buruzko sentsibilizazio modua

GHren helburu nagusia jendea —hiritarrak, orokorrean— "urruneko" lekuetan (herrialde "azpigaratu" deitzen zaie) duten errealitateari buruz sentsibilizatzea da. Errealitatearen alderdi negargarrienak eta katastrofikoenak aurkezten dira, "hondamendi" horiek jendearen sentimenduak hunkitu eta egoera konpontzeko diru laguntzak emango dituztelakoan. Ikuspegi hori garai hartan garapena ulertzeko moduarekin bat dator: garapena eta hazkunde ekonomikoa gauza bera ziren, eta Hegoaldeko herrialdeentzat Mendebaldeko herrialde industrializatuen bilakaera bera proposatzen zen, garapen aldi berdinak izatea. Horrek benetako "Garapena" ekarriko luke (Rostow).

[7] Iturriak: ACSUR-Las Segovias: *Experiencias de Educación para el Desarrollo en el trabajo con jóvenes*, Grupo de Juventud – Área de Educación para el Desarrollo, Madril, 1995. Ikus, baita ere, esaterako: Celorio, JJ.: *La Educación para el Desarrollo*, Bakeaz Liburuxkak, 9. zk, 1995eko ekaina; Mesa Peinado, M.: *La Educación para el Desarrollo: entre la caridad y la ciudadanía global* (*Evolución del concepto de Educación para el Desarrollo* atalaren bertsio egokitua, orraztua eta eguneratua. OPEko *La Educación para el Desarrollo y las Administraciones Públicas* atariko informearen egilearena. Pilar Baselgak eta Gabriel Ferrerok egin zituzten koordinazio lanak eta Álvaro Nebredak, M. Luz Ortegak eta Manuela Mesak landu zuten).

| | |
|---|---|
| BERARIAZKO ERAGILEAK | GGKEak eta kanpaina nagusien inguruko borondatezko laguntzak. |
| KONPROMISOA ULERTZEKO MODUA | Laguntza moduan. Balioak filantropikoak edo erlijioren batean oinarritutakoak dira. Helburua enpatia, jendearengan emozio indartsuak sorraraztea eta karitatea lortzea da. Konpromisoa besteen eta Hegoaldearen sufrimenduan eta zoritxarrean oinarritzen da. |
| HEZKUNTZA ULERTZEKO MODUA | Ez da ezer berririk ikasten; informazio sentikor gehiago ematen da, eta informazio horrek jendea hunkitzen duenez, lortu nahi den erantzuna lortzen da. Hezi baino gehiago hunkitzea da helburu nagusia. Beharrak eta gabetasunak erakutsiz jendea laguntzeko prest agertuko dela uste dute. |
| HELBURU DUEN JENDEA | Jendea, oro har. Kulturen, gizarteen edo pertsonen arteko desberdintasunak ez dira kontuan hartzen. Mezua jasotzen duen pertsonak bere sentsibilitatearen arabera (ustez aurrez landutakoa) erantzun behar du. |
| HELBURUAK | Kuantitatiboak, banangarriak eta neurgarriak, funtsean. Garrantzitsuena kanpaina egiten duen erakundea banakako pertsonarekin lotzen duen prozesua da, baita banakako erantzuna eragiten duen guztia ere. Hegoaldearen zeregina ezbeharraren irudia izatea da, baita laguntza jasotzea ere. |
| BALIABIDEAK | Bitartekoak kanpainaren inguruan antolatzen dira; izan ere, kanpaina da ekintzaren muina. Ekintza horiek berdinak dira leku eta talde guztientzat, eta ez dira taldeen edo egoeren berezko ezaugarriak kontuan hartzen. |
| EBALUAZIOA | Kuantitatiboa, noizbehinkakoa eta konparatiboa, funtsean. Ekintzaren une zehatzak ebaluatzen dira, eta emaitza eragin kuantitatiboaren arabera balioztatzen da. Prozesua ez du epe luzera kontuan hartzen; gertatutako eraldaketak ere ez ditu aintzakotzat hartzen. |

### 2. aldia: GH elkartasun modura

GHren kontzeptuak aurrera egiten du, eta informazioaz eta sentsibilizazioaz gain, Iparraldean kontzientziazioaren eta aldaketaren beharra aldarrikatzen hasten da. Hegoaldean garapena lortu ahal izateko, Iparraldearen eraldaketa bultzatu behar dela adierazten du; izan ere, azpigarapenaren egiturazko kausak historian zehar Iparraldearen eta Hegoaldearen artean sortutako harremanak dira. Norabide aldaketa hori garapen kontzeptuaren aldaketak bultzatu zuen: mendekotasunaren teoriak agertu ziren (Samir Amin, Celso Furtado, Gunder Frank), eta, horien arabera, Iparraldeak Hegoaldearen "azpigarapenaren" erantzukizun handia dauka. Garai horretan zenbait kontzeptu garrantzitsu bihurtu ziren: elkarrenganako mendekotasuna, aldaketak herrialde aberatsen gizarteetan eta politiketan, loturarik eza, garapen endogenoa...

| | |
|---|---|
| BERARIAZKO ERAGILEAK | GGKEak. Borondatezko baliabideak espezializatu eta gaitu egiten dira. Hegoaldeko tokian tokiko erakundeak agerikoagoak egiten dira, eta indar handiagoa hartzen dute garapen prozesuetan parte hartzeko. |
| KONPROMISOA ULERTZEKO MODUA | Konpromiso kritikoa eta politikoa; ideologia ez da ekintza humanitarioetan soilik oinarritzen eta haratago doa. GH Iparraldean aldaketak bultzatzeko lanean hasten da, ea Hegoaldeko balioak eta proiektu alternatiboak zein eraldatzaileak sartzen ditu. GH Iparraldeko eredu nagusiaren autokritikan oinarritutako elkartasuna sortzearen alde agertzen da. Konpromisoaren muina inposatutako garapen eta lankidetza ereduen kritika da. Izan ere, eredu horiek morrontzari eta mendekotasunari eusten diote. GHk etika eraldatzaile baten aldeko apustua egiten du, burujabetza lortzeko. |
| HEZKUNTZA ULERTZEKO MODUA | Hezkuntzak berezko garrantzia du. Pertsonek kultur eremu guztietan eraiki beharko duten ikaskuntza da. Ikaskuntza prozesu konplexua da, eta osagai kognitiboak, afektiboak eta ideologikoak biltzen ditu, gizarte jarduteetatik eratorriak. Hezkuntzaren zeregina pertsonek nahiz taldeek parte har dezaten eta ikaskuntza alda dezaten sustatzea da, horretan sakontzea, laguntzea eta horretarako elementuak ematea. Ikaskuntza aldatuz bakarrik lor daiteke aldaketa egonkorra, banakako nahiz taldekako prozesu konplexu baten bidez. |

| | |
|---|---|
| HELBURU DUEN JENDEA | Jende jakina. Aniztasun handiak daude, eta, beraz, beharrezkoak dira berariazko eta ondo antolatutako estrategiak. Hezkuntzak parte hartzea eskatzen du, baita sare egonkorrak sortzea ere, kontaktuak egiteko, ikasteko, esperimentaziorako eta eztabaidarako.<br>Irakaskuntza/ikaskuntza prozesua Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeen, taldeen eta pertsonen arteko elkarrekintza bihurtzen da, eta horiek elkar onartu eta elkarrekin ikasten dute. |
| HELBURUAK | Kualitatiboagoak. Iparraldeko pertsonen eta taldeen ikuspegiak eta interesak Iparralde/Hegoalde ikuspuntuarekin aberasten dira. Asmoa hau da: kritikan eta aldaketaren aldeko ekintzan oinarritutako elkartasuna eraikitzea. |
| BALIABIDEAK | Bitartekoak dibertsifikatu egiten dira, eta horiek erabiliko diren lekuko egoerara egokitzen dira. Giza baliabideek berezko balioa dute, eragileen arteko harreman elkarreragileak errazten baitituzte. |
| EBALUAZIOA | Hezkuntza prozesu guztian zehar ikuspegi elkarreragile eta kualitatiboa izango da nagusi. Martxan jarritako elementu guztiak elkarren mendekoak direla hartu behar da aintzat, eta, gainera, elementu horiek, testuinguruaren eta parte hartzen ari diren pertsonen eta taldeen baitan aztertu behar dira. |



**3. aldia: Garapenerako hezkuntza ekintza kritiko, askatzaile eta global gisa**

GHk aurreko aldietako zenbait elementu izaten jarraitzen du, esaterako: informazioa, sentsibilizazioa edo kontzientzia kritikoa sustatzea, eraldaketa posible izateko. Helburua munduaren eredu berri bat eraikitzen laguntzea da, eremu eraldatzaile berriak eta ikuspegi berriak sortzen laguntzea, hausnarketa kritikoari eta alternatiboari inolako trabarik jarri gabe. Edukiak, estrategiak eta horien norabideak berreraiki egin behar dira, tokian tokiko eta munduko errealitateak kontuan hartuta.

| | |
|---|---|
| BERARIAZKO ERAGILEAK | GGKEk erreferentzia nagusi izaten jarraitzen badute ere, GHren eragile sistema konplexuago bihurtzen da. Demokratikoagoa bihurtzen da, Hegoaldeak, irakasleek, sindikatuek eta antolatutako taldeek boterea eskuratu eta aktiboki parte hartzen baitute. Eragileak, beraz, dibertsifikatu egiten dira, eta elkarren arteko harremanak sare elkarreragileen bidez gauzatzen dituzte. |
| KONPROMISOA ULERTZEKO MODUA | “Mundua gogoan, jardun auzoan” leloari jarraituz jardun behar denean, gatazkan dauden balio eta analisi sareak jartzen dira martxan. Balioek eta etikek kritikoki ibili behar dute unibertsaltasunaren eta kulturartekotasunaren artean. Horretarako, beharrezkoak dira sormena, komunikazioa eta eztabaida, bai eta ekintza eraldatzaile baten aldeko konpromisoa ere. |
| HEZKUNTZA ULERTZEKO MODUA | Hezkuntzaren ikuspegi kritikoa aldeko bihurtzen da. Hezkuntza eragileek esparru formaletan, ez formaletan eta informaletan izandako esperientziek (bakoitzak bere kezkak dituela), GHri trebatzeko eta hedatzeko aukera ematen diote. Hezkuntzak autonomia lortzen du. Izan ere, erronka hau da: pertsonen, taldeen eta kulturen gizarte jarduteen eta interesen aldaketa egonkorrak lortzeko urratsak ematea. |
| HELBURU DUEN JENDEA | Parte hartze eta erabaki hartze prozesuen demokratizazioa dela eta, galdetzeko, harremanak sortzeko eta egituratzeko moduak sortu beharko dira, askotarikoak eta oso moldakorrak. Oso egituratze sare malguak sortu behar dira nazioz gaindiko eremuan, tokian tokiko komunitateekin batera. |
| HELBURUAK | GHren eragileek eta hartzaileek helburuak birmoldatu behar dituzte, bakoitzaren egoeraren arabera, eta interesen artean akordio bat lortu ondoren. |

| | |
|---|---|
| BALIABIDEAK | Aldi honetako baliabideek izan beharko dituzten hiru ezaugarri nagusiak hauek dira: autonomia, aldakortasuna eta sormena. Bitarteko materialak elkarreragina bultzatzeko tresna bihurtzen dira. Egoeraren arabera sortutako bitartekoak nagusituko dira; bitarteko zentralizatuak, berriz, gutxiago erabiliko dira. Halere, bitarteko horiek erabiltzen jarraituko dira baldin eta giza baliabideek berariazko bitarteko moduan egituratzen badituzte. |
| EBALUAZIOA | GH osatzen duen elementu hori ere konplexuago bihurtzen da. Ebaluazioa prozesu bat da eta hobetzeko tresna bat. Kontzeptua zabaldu egiten da eta esperientzien sistematizazioa egiten. Sistematizazioaren esanahia hau da: "bizitako esperientzia baten interpretazio kritikoa egitea, prozesua ordenatuz eta berreraikiz, bizitako esperientzia horren logika argitzen eta deskribatzen duena, bai eta prozesuan eragina izan duten faktoreak, horiek elkarren artean izandako loturak, eta zergatik lotu diren horrela ere."[8] |



## 1.5. Garapenerako Hezkuntza hezkuntza sisteman

GHk jarreren, balioen eta jarduteen aldaketa positiboa bultzatu nahi du hezkuntza formalaren alorrean, ikasleek beren bizitzaren eta munduko beste pertsona batzuen bizitzen arteko harremana uztartu ahal izan dezaten. Horren ondorioz, pertsona guztiek, orain eta etorkizunean, bizitza baldintza duinak izango dituzten mundua sortzeko eraldaketan parte hartzeko aukera izango du ikasleak, eta partehartze hori gerora ere izaten jarraitzekoa. Horrela, "egungo gizarte eta teknologia dinamikari buruzko prestakuntza kritikoa —balorazioak egiteko modukoa— izateko beharrari erantzungo zaio, egungo egunerokotasuneko arazoak egoera jakin horretatik atera eta beste kultura batzuenetakoekin eta etorkizun hurbilekoekin lotzeko."[9]

[8] Jara, O.: *El aporte de la sistematización a la renovación teórico-práctica de los movimientos sociales*, Alforja sarea, San Jose, Costa Rica, 1998.

[9] Argibay, M.; Celorio, G.; Celorio, JJ.: *Guías didácticas para el desarrollo de concreciones curriculares en el área de Ciencias Sociales de la ESO*, Hegoa, Gasteiz, 1993.

GHk irakaskuntza/ikaskuntza prozesua aldatzea proposatzen du: norabide bakarreko ikuspegiak —irakaslea ezaguera bakarraren eta "egiazkoaren" jabe da— alde batera utzita, norabide anitzeko ikuspegiaren alde egiten du, eta jakintzaren, gaitasunen eta jarreren eraikuntza dinamikoa proposatzen du. Ikasleak bere errealitateari (tokian tokikoa eta globala, aldi berean) buruzko pentsaera kritikoa izan behar duela defendatzen du; horretarako, bere bizitzan eragina duten indar estrukturalak eta ideologikoak aztertu beharko ditu, eta bere ikasketa prozesuan parte hartu behar du.[10]

Eredu horren osagai metodologikoak hezkuntza aktiboaren berezko osagaiak dira. Horien artean, hauek nabarmentzen dira: esperimentazioaren bidez ikastea; hipotesiak egitea; edukien, balioen eta prozeduren arteko harremana; eztabaida; informazioa bilatzea eta aztertzea; ekintzarako estrategiak eratzea.[11]

Hezkuntza formalaren alorrean, GHk jakintza akademikoa eguneroko bizitzaren ezaguerarekin lotzen saiatu behar du, hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsonek osoko giza garapen jasangarria lortzeko aukera izan dezaten: pertsonala, tokian tokikoa, nazionala eta nazio artekoa. Hori lortzeko, zenbait eduki azpimarratzen ditu. Eduki horiek hau dakarte:

- Balioak eta jarrerak: norberaren estimua, elkar ulertzea, justizia-ekitatea, parte hartzea, elkartasuna, lankidetza, ziurgabetasunarekiko tolerantzia.
- Prozedurak: hipotesiak egitea, informazioa bilatzea, biltzea eta aztertzea, komunikatzea, eztabaidatzea, esperientziaren bidez ikastea.
- Ezaguera teorikoak: desberdintasunaren kausak eta ondorioak, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak, hezkidetza, kulturartekotasuna, bake hezkuntza, garapena, nazioarteko lankidetza, ingurumena, eginbeharrak eta giza eskubideak.

Hezkuntza formalaren baitan, GHk hainbat oztoporekin egiten du topo. Oztopo horiek irakaskuntza arautuaren legeek eragiten dituzte. Hauek dira nagusiak:[12]

- LOGSEk hezkuntza sistemaren erreforma ekarri zuen, eta horri esker, GHk eragin handiagoa izan zezakeen eskola erakundean: berariazko helburuak ezartzeko aukera ematen zuen eta GH asko garatzekoa, bai maila praktikoan, baita teorikoan ere. Halere, gaur egun "erreformaren erreforma" garaian gaude, eta, horren ondorioz, GH hezkuntza sistematik kanpo geratzen da. Hezkuntzaren Kalitaterako Lege Organikoak ez du hezkuntzaren eta balioen arteko harremanari buruzko adierazpen zehatzik egiten. Izan ere, Lege horren arabera, hezkuntza ikasgai zientifiko neutroa da. Beraz, atzera egin eta aurreko ikuspegira bueltatzen da: ikaskuntza "egiazko" eduki estatikoak eskuratzea da. Zalantzarik gabe, GHk hezkuntza komunitatean jarraituko du, jarraitu ere; baina egungo legedia dela eta, GH banakakoen militantziaren baitan egongo da.

[10] Henry Giroux in: Guzmán, JL.: *Educación de adultos, desarrollo humano y justicia social*, Revista de Psicología de El Salvador, San Salvador, 1991.

[11] Eizaguirre, M.: *Educación para el Desarrollo* en *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Hegoa-Icaria, Bartzelona, 2000; eta Baldia, P.: *Reflexiones sobre la Educación para el Desarrollo*, en Comunidades de Aprendizaje, 1998ko apirilaren 29an, 3. orr.

[12] Ikerketan zehar GHk hezkuntza formalaren alorrean dituen oztopoak, erronkak eta aukerak sakonago aztertuko ditugu.

• Legedi berri horrek hezkuntza alorrak izan ditzakeen bost “iruzur” egiteko aukera handitzen du[13]:

1. Hezkuntza “giza baliabide” probetxugarrien zerbitzura erabiltzea.
2. Pertsonak enpresen lan merkatuaren arabera prestatzea.
3. Lehiakortasun ikaragarria.
4. Hezkuntza teknologiaren menpe jartzea.
5. Hezkuntza sistema gizarte zatiketak zilegi egiteko erabiltzea.

Oztopo horiek eta beste zenbait oztopo hor egon arren, edo, agian, horiek gainditzeko ahaleginei esker, GHk pertsonen, erakundeen, komunitateen, kulturen eta gizarteen osoko prestakuntzarako aukera paregabeak eskaintzen dizkigu. Zenbait erronka ere egiten dizkigu, zenbait mailatan:

• Pertsonalak: GHk, hasteko erronka moduan, aldaketa pertsonala dakarkigu. Gizarte eraldaketa geure buruetatik abiatuz hastea, alegia. Hezkuntza komunitatearen alorrean, profesionalek (zentzu zabalenean) GH pedagogia ikuspegi moduan erabiltzeko ahalmena dute eskuartean.

• Erakunde mailakoak: eskola antolakuntzan (maila guztietan) GH gizartea eraldatzearen aldeko balioen hezkuntza moduan bultzatu behar da, hori gure eguneroko bizitzaren parte izan dadin, eta eguneroko bizitzan bai tokian tokikoa bai mundu osokoa kontuan hartuta jardun dezagun.

• Gizarte eta ekonomia mailakoak: garapenaren alde, garapenari buruz eta garapenean heztea oso konplexua da gaur egungo gizartean. Izan ere, gizarteak boterea eta baliabideak eskuratzeko desberdintasuna justifikatzen eta betikotzen duten balioak aldarrikatzen ditu, ez bakarrik arrakasta lortzeko, bizirik irauteko ere bai.



[13] Petrella: *Cinco trampas tendidas a la Educación*, Le Monde Diplomatique, Espainiako argitalpena, 2000ko urrian.

# Kapitulu 2. Metodologia
# Nola ikertu dugu?

Hasieran azaltzen genuen moduan, ikerketa bereiztutako bi alditan banatu zen:

- GHri buruzko diagnostikoa, EAEko hezkuntza sistemaren Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan,
- GH hobetzeko proposamena, testuinguru horretan.

Atal honetan aldi bakoitzean "jakin nahi genuena" aurkezteaz gain, "informazioa nola bildu genuen" azalduko dugu bereziki. Horrekin guztiarekin bi helburu nagusi lortu nahi ditugu: batetik, ikerketan egindako ekintzei buruzko **txosten** bat aurkeztea; eta, bestetik, txosten hori **lanerako tresna** moduan erabili ahal izatea. Horrela, egindako ekintzak aurkezteko, pauso hauek jarraituko ditugu:

- Zer jakin nahi genuen?
- Nola bildu genuen informazioa? Nola aztertu genuen?

# 1 Aldia: GH-ri buruzko diagnostikoa, EAE-ko Hezkuntza Sistemaren Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan

## ZER JAKIN NAHI GENUEN?

Egindako ekintza guztien zeharkako helburua, une oro, EAEko hezkuntza sisteman GHren egoera hobetzea izan da. Horretarako, GH hobetzeko proposamenak egin aurretik, hau izan zen lehen pausoa: hezkuntza sistemaren eragileek gai honi buruz zituzten ideiak sakonago ezagutzea. Are gehiago, gure asmoa diagnostikoa eta gauza zitezkeen proposamenak eragile horiek beraiek egitea zen. Horrela, lehenengo aldi honetan, gure helburua GHren partaidetza diagnostikoa egitea zen, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan. Diagnostiko horretan, ikerketari ekitean geure buruari egin genizkion galdera hauei erantzun behar zitzaien:

- Nola ulertzen du hezkuntza komunitateak GH? Eta hezkuntza formalean lantzen duten GGKEek? Eta berritzeguneek?
- Horien ustez, zer balore bultzatzen ditu GHk?
- Zein dira GHk lantzen dituen funtsezko gaiak?
- Nola egiten du lan GHk ikasgela batean? Eta eskolan? Zer ekintza egiten ditu? Zer baliabide erabiltzen ditu?
- Horien ustez, zein helburu lotu du GHk?
- Zer nolako zailtasunak ditu GHk?



## NOLA BILDU GENUEN INFORMAZIOA? NOLA AZTERTU GENUEN?

Aurreko galderei erantzuteko, zenbait ekintza egin genituen hezkuntza formalaren baitan GH bultzatzen duten eragileengana hurbiltzeko asmoz. Ondoren, ekintza bakoitza aurkeztuko dugu, ordena kronologikoari jarraituz:

### Orrazketa bibliografikoa

Eragileekin zuzenean lanean hasi aurretik, orrazketa bibliografikoa egin genuen: ikerketaren helburuarentzat mesedegarri izan litezkeen lan teorikoak, materialak eta esperientzia baliagarriak aurkituz eta aztertuz, informazio garrantzitsua bildu nahi genuen. Bibliografia atalean, horietako zenbait liburu agertzen dira.

### GGKEei inkestak[1]

EAEko GGKEen koordinakundean federatuta dauden GGKEekin jarri ginen harremanetan, baita Elkarganatzen Plataformaren[2] kide direnekin ere. Hezkuntza sisteman GH lantzen duten erakundeak zein diren zehazteko, bi irizpide hartu ziren kontuan:

- Hautaketa, GGKEen koordinakundearen eta Elkarganatzen Plataformaren idazkaritza teknikoek emandako informazioaren arabera,
- eta erakundeek eman zizkiguten zerrendetako GGKEei telefonoz eta posta elektronikoaren bidez egindako kontsultak.

Hasieran, ildo estrategikotzat ikastetxeetan GH lantzen duten GGKEekin bakarrik jarri nahi genuen harremanetan. Halere, jasotako informazioak argitasunik ez zuenez, zerrendetan agertzen ziren GGKE guztietara galdeketa bat bidaltzea erabaki genuen.

Galdeketa horren helburuak hauek ziren:

- EAEko GGKEek hezkuntza formalaren arloan GHren harian egiten duten lana ezagutzea eta biltzea,
- GGKEek GHk hezkuntza sistemaren baitan duen egoera nola ulertzen duten jakitea,
- azken bi urteetan GHri buruzko lotutako ekintzak egiten edo egin izan dituzten ikastetxeen lagin bat egitea.

Galdeketan bi motatako galdera zeuden: batzuk erdi irekiak eta beste batzuk itxiak.[3] Posta elektronikoz bidali ziren, eta jarraipena telefonoz egin zen.

### Elkarrizketak ikastetxeetan[4]

GGKEei egindako galdeketen bidez, GGKErekin elkarlanean ari ziren edota azken bi urteetan zehar aritu izan ziren ikastetxeen lagina egin zen, 109 ikastetxez osatutakoa, hain zuzen. Jakin badakigu oso ekintza interesgarriak egin dituzten zenbait ikastetxe kanpoan utziko genituela, bai beste erakundeekin elkarlanean, baita ikastetxearen beraren ekimenez ere ekintza interesgarriak egin dituztenak.

Lagin horretatik 42 ikastetxe hautatu genituen,[5] eta horietan sakoneko elkarrizketak egin ziren. Ikastetxeak hautatzeko irizpidea hau izan zen: galdeketa erantzun zuten GGKE guztiekin lan egin zuten ikastetxeak egotea. Izan ere, horiek ekintza desberdinak egin zituztenez, emaitzak heterogeneoagoak izango zirela uste izan genuen.

[1] Ikusi 1. eranskina.

[2] Ikusi 2. eranskina: erakunde horietan federatuta dauden GGKEen zerrenda agertzen da.

[3] Ekintzen tipologiaren iturria: Pino, E., De la Fuente, C., Ferrándiz, JL. eta Gago, A.: *Una mirada hacia el futuro. Panorama actual y desafíos de la Educación para el Desarrollo en las ONGD de la Coordinadora*, CONGDEren Vocalía de Educación para el Desarrollo, Madril, 2000.

[4] Ikusi 3. eranskina.

[5] Ikusi 4. eranskina: elkarrizketatutako ikastetxeen zerrenda du.

Elkarrizketa egiteko, telefonoz zita bat hitzartu genuen, GGKEek adierazi ziguten pertsonekin. Pertsona jakin baten erreferentziarik ez genuenean, deitu eta ikastetxe horretan GHren inguruko ekintzak (elkartasunari buruzko gaiak, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak, justizia soziala edo antzekoak) bultzatzen zituen pertsonaz galdetu genuen.

Elkarrizketak ikastetxeetan bertan egin genituen, irakasleak edo orientatzaileak proposatzen zigun ordutegira moldatuz.

3. eranskinean ikus dezakegunez, berriz ere galdera itxiak eta erdi irekiak erabili genituen. Kasu horretan, irakasleak, GH lantzeko ekintzarik esanguratsuena zein zen azaltzen zigun, eta elkarrizketa ekintza horren inguruan bideratzen genuen. Horrela, irakasle bakoitzarentzat, bere ustez, Garapenerako Hezkuntza ikuspegi horren berezko gaiak zein ziren ikusten genuen.

### Eztabaidarako taldeak[6]

GGKEen galdeketak eta ikastetxeetako elkarrizketak amaitu ondoren, eragile, pertsona eta talde bakoitzak GH ulertzeko eta bizitzeko era jakin bat duela ikusi genuen —bakoitzaren aukeren araberakoa ere izaten da–. Ikuspegi desberdin horiek eztabaidatzeko gune bat sortzea oso interesgarria iruditu zitzaigun: gune horrek, alderdi subjektibo hutsak gaindituz, GHren ezaugarri garrantzitsuak zein diren, eta, gaur egun, GH hezkuntza sistemaren baitan nola ulertzen den adosteko aukera emango luke.

Talde horiek hezkuntza zentroetan elkarrizketak amaitu eta hilabetera gauzatu ziren. GGKEak eta ikastetxeak probintziaren arabera deitu genien, partaidetza errazteko asmoz.

### Eztabaidarako foroa[7]

Hasieran, foroaren helburua GHk eskoletan duen egoera deskribatzea zen; halere, aurreko ekintzen bidez deskribapen horretara hurbiltzea lortu genuela ikusirik, helburua berritu egin genuen, GHren egoera hobetzeko urratsak ematen hasteko.

Helburu bikoitz horrekin, gauzatutako lan eskema bi sailetan banatu zen:

- Talde txikietan egindako lana, ikerketaren aurreko ekintzetan (galdeketak, elkarrizketak eta eztabaidarako taldeak) jasotako informazioa eztabaidatzeko eta balioztatzeko,
- osoko bilera, talde bakoitzaren hausnarketak jakinarazteko. Hezkuntza formalaren baitan GHren egoera ideala eratuko luketen elementuak ezarri ziren.

[6] Ikusi 5. eranskina.

[7] Ikusi 6. eranskina.

### Berritzeguneei elkarrizketa[8]

Orain arte deskribatutako ekintzak egin ondoren, erreferentzien eta azalpenen bidez aipatu baziren ere, hezkuntza sistemaren eragile esanguratsuenetariko batekin zuzenean ez genuela parte hartu konturatu ginen: Berritzeguneekin,[9] alegia.

Une horretan zentro horietara jo, eta sakoneko elkarrizketa bat egin genuen. Kasu horretan ere helburua bikoitza izan zen:

- Berritzeguneek GHk hezkuntza sistemaren baitan duen egoera nola ulertzen duten jakitea,
- aurreko ekintzen ondorioz egindako diagnostikoa egiaztatzea eta balioztatzea.

Elkarrizketa horiek berebiziko garrantzia izan dutela esan behar dugu, GHren egoera zein den eta GH hobetzeko zer-nolako aukerak dauden jakiteko.

Bide batez, Irakasle Eskolaren parte hartzea oso garrantzitsua dela azpimarratu nahi dugu, ikerketa honetan parte hartze zuzenik izan ez baduen arren. Izan ere, Irakasle Eskola funtsezkoa da, GHn oinarriturik, hezkuntza eraldaketa bultzatu nahi duen edozein ekimen aurrera eramateko.

### Diagnostikoaren zirriborroa egitea

Ordura arte jasotako informazioa aztertu ondoren, oinarrizko agiri bat egin zen. Agiri hori parte hartu zuten eragile guztien artean banatu zen.



[8] Ikusi 7. eranskina.

[9] Ikusi 8. eranskina, EAEko Berritzeguneen zerrendarekin.

# *Aldia 2: Hobetzeko proposamenak: GH-ren erronkak hezkuntza sistemaren baitan*

## ZER JAKIN NAHI GENUEN?

Zalantzarik gabe, geure "jarduteak" entzutea ikasteko eta eraikitzeko iturri pribilegiatua da: berriz ere, hasieran programatutako ekintzak berregituratu genituen. Hasiera batean, bigarren aldi honetan, gure asmoa eztabaidarako taldeak egitea zen, hobetzeko proposamen premiazkoenak, egokienak eta bideragarrienak zehazteko. Halere, ikerketaren fase hau hasterako, pertsona eta talde partehartzaileek nabarmendutako funtsezko gaiak jadanik bilduta zeuden. Beraz, bilgune horien helburua birmoldatu egin behar izan genuen hezkuntza sistemaren baitan, GHren egoera hobetzeko ildo estrategikoei buruzko adostasuna lortzeko tresna izan zitezen.

## NOLA BILDU GENUEN INFORMAZIOA? NOLA AZTERTU GENUEN?

Aipatutako ildo estrategiko horiek zehazteko, ondorengo ekintza hauek egin ziren:

### Hobetzeko proposamenei buruzko eztabaida taldeak[10]

Berriz ere, zenbait eragile, pertsona eta taldez osatutako gune bat genuen. Kasu honetan, lanerako eskemak bi une izan zituen:

- Ikerketan zehar sortu ziren hobetzeko proposamenei buruzko eztabaida, talde txikietan,
- eta osoko bilera, hausnarketa guztien berri emateko. Proposamenak gauzatzeko aukerak eztabaidatu ziren.



### Galdeketa osagarria

Eztabaida taldeko lana osatzeko asmoz, galdeketarekin batera, gune horretan erabilitako lanerako gida bidali zitzaien ikerketaren beste une batzuetan parte hartu bai pertsonei baita aurreko ekintzan parte hartu ez zutenei.

[10] Ikusi 9. eranskina.

# Kapitulu 3. Diagnostikoa

## Datuen analisia

### 1. NOLA ULERTZEN DA GH?

DEFINIZIOA

Ikastetxeak

• Ikastetxeetan "Garapenerako Hezkuntza" kontzeptuari buruz izugarrizko nahasketa dago. Ondorioz, kontzeptu hori jardutetik abiatuta definitzen da: kontzeptuak esan nahi duena azaldu ordez, egiten dena azaltzen da.

• Irakasleek sarrien proposatzen dituzten definizioak hauek dira: "Elkartasunari, gizarte justiziari eta Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanei buruzko zehar-lerroa", "Hegoaldeko pobreziari buruzko sentsibilizazioa" eta "kulturarteko hezkuntza". Azken definizio horrek interes berezia du, kulturartekotasunak gero eta garrantzi handiagoa baitu, eta eskoletan kultur aniztasun ereduetara moldatu behar direla ohartu baitira. Izan ere, kultur aniztasuna bera eskoletara heldu da dagoeneko.

• GH kontzeptua oso zabala da: guztion bizikidetzarako eta ongizaterako balioetan heztearekin zerikusia duen guztia hartzen du baitan. GHk ikasleei errealitatea "ikustarazten" die, eta, "ikuspegia irekitzeaz" gain, "munduaren errealitatea agerian" jartzen die.

• Mundilab esperientzia gauzatzen duten ikastetxeetan kontzeptu hori teorikoki sakonago landu dela ikusten da[1]. Emandako definizioen artean, ondorengo hau nabarmentzen da:

[1] Esperientzia horren bidez jasotako ikaskuntzari esker izan daiteke, edo ikastetxe horiek GH lantzen eskarmentu handiena dutenak direlako (agian, horregatik sartu dira Mundilaben: interes handiagoa dutelako, hain zuzen ere).

"GH eduki, ekintza edo ebaluazio irizpide multzo bat da, baita zehar-lerro bat ere. Zentzu horretan hain erabilgarria ez bada ere, bada GH ulertzeko beste era bat: ikastetxeak hezteko duen modua da, oro har, gizarte berdinketa eta komunitatearen garapena bultzatzeko. Azken definizio horren arabera, hezkuntza gizarte sustapenaren eta ikastetxeko kultur komunitateen garapenaren sustatzailea da, eta, horren haritik, bertan sor daitezkeen berrikuntza arazo guztiekin du zerikusia, zehar-lerroekin gertatzen den bezala."

GGKE

- GGKE gehienek ez dute GHri buruzko berezko definiziorik; beste definizio batzuetan oinarritzen dira, eta horiekin bat datoz.
- Ez dago definizioaren eta erabilitako metodologiaren arteko muga argirik.
- Halere, erakunde guztietan kontzeptu komunak erabiltzen dira. Gehien errepikatzen diren hitzak hauek dira: gizarte eraldaketa, balioen eta jarreren aldaketa, hiritartasun eta partehartze eraginkorrak, konpromisoa, elkartasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasunagatiko errespetua. Kontzientzia eta hezkuntza kritikoa ere nabarmentzen dira.
- GH kontzeptua sortu zenetik[2], bilakaera bat ikusten da. Duela zenbait urte arte, informatzeko eta sentsibilizatzeko gaitasunak azpimarratzen ziren, eta, orain, galdeketaren bidez emandako definizioetan sentsibilizazioa eta informazioa epe luzerako prozesu zabalago baten baitan ulertzen dira. Prozesu horren helburua gizarte eraldaketa lortzea da, mundu bidezkoago baten alde: pertsona guztiek baliabideak eta boterea eskuratu ahal izango dituzten mundua, hain zuzen ere.

"Garapenerako hezkuntza burujabetza lortzeko jardutea da, pertsonei errealitateaz kritikoki ohartarazteko aukera emango dien prozesua, gizartea eraldatzeko prozesuetan era eraginkorrean parte har dezaten, bai eta elkartasunean, justizian eta zuzentasunean oinarritutako garapen eredu alternatiboak bilatzen ere. Garapenerako hezkuntzak epe luzera ikasteko eta irakasteko prozesuak sustatzen ditu; prozesu horietan pertsonek dakitena elkarbanatzen dute, ahalmenak garatzen dituzte —kognitiboak, afektiboak eta jarrerazkoak— eta taldeko konpromisoa hartzen dute, errealitatean eragina izateko eta giza garapena bultzatzeko".

"Hezkuntzak gizartea eraldatzeko ahalmena du bere baitan. Gizarteratzea helburu duten beste erakunde batzuekin "lehiakortasuna" gogorra bada ere, eskolak balioak transmititzeko gune garrantzitsua izaten jarraitzen du. Eskolan kultura ere sortzen da —ez ezaguera multzo baten moduan— pertsonak elkarren artean harremanak izateko, sentitzeko, esanahiak eraikitzeko eta balio multzo baten inguruan bizimodua eratzeko duten modutzat hartuta. Eremu horretan, hain zuzen ere, hezitzaileok eragina izan

[2] Ikusi *GHren bilakera Esparra Teorikoan* atalean.

dezakegu: kultura sortzen, elkartasun kultura sorrarazten, hain zuzen ere. Elkartasunean bizi diren pertsonekin soilik hartuko dira mundu ordena bidezkoago eta gizatiarrago baten aldeko neurri eraginkorrak".

• GH banakako eta gizarte mailako aldaketarekin lotuta dago.

Berritzeguneak

• Berritzeguneetan ez dago GHri buruzko definizio formalik:

"Berritzeguneko pedagogia proiektuan ez da agertzen. Berritzegune moduan, oro har, ez dugu kontzeptu hori landu". (Sestao)

• Berritzeguneentzat GH ez da lehentasuneko gaia. Aldiz, unean uneko arazoak konpontzen saiatzen dira, eta guztia lotuta dagoela deritzote:

"Funtsean, balio multzo bat lantzean GH lantzen ari zarela konturatzen zara. Nolabait, guztiak gaude gai horiei buruz sentsibilizatuta. Agian ez dugu GH zuzenean mahai gainean jartzen, hemen ditugun berezko arazoak konpontzen saiatzen garelako; halere, nolabait, guztia lotuta dago". (Zaratamo)

• GH kontzeptu zabaltzat hartzen da, kultur aniztasunari lotutakoa, bereziki, baina baita bestelako kontzeptu batzuekin ere: bizikidetzarekin —ikasgelan eta gizarte ingurunean—, hezkuntzarako aukera berdintasunarekin, hezkidetzarekin eta bakerako hezkuntzarekin, hain zuzen ere.

• Tokian tokikoaren eta mundu mailakoaren arteko elkarrekintza nabarmentzen da, honelako eta antzeko definizioen bidez:

"Zenbait mailatan eragina duen garapena da: pertsonarengan, bere inguruan eta, gero, gizartean". (Barakaldo)

• Berritzegune gehienek GH zehar-lerro moduan ulertzen dute: gizarte justiziaren eta elkartasunaren balioak bultzatzen dituen lerroa, hain zuzen. Halere, zenbait kasutan, ikuspegi hori zabaldu egiten da, eta honela ulertzen da: "pertsonaren osoko garapenari lehentasuna ematen dion hezkuntza ikuspegia".

SUSTATU NAHI DITUEN BALIOAK ETA JARRERAK

Ondoren, 3 eragin maila aurkezten dira. Maila horien bidez, GHk tokian tokikoaren eta mundu mailakoaren arteko elkarrekintza bultzatzen duela ikusiko dugu:

• Maila pertsonala: GHren bidez norberaren ezaguera, autonomia, norberaren kritika eta nor beraren estimua bultzatzen dira.

• Gizarte eta kultur maila: GHk beste kulturak ezagutzea sustatzen du, batez ere, baina baita

horiek ulertzea eta errespetatzea ere. GHk sustatu beharreko balio/jarrera nagusia elkartasuna da; ondoren, ikasleak munduko errealitateko eguneroko ingurunera hurbildu behar ditu, eta errealitate horri buruz sentsibilizatu behar ditu. Beste zenbait gizarte balio eta jarrera ere aipatzen dira: arazoen jatorria ulertzea, erantzuteko gaitasuna, laguntasuna, talde lana, mundu bidezkoago baten aldeko konpromisoa, bizikidetza, lankidetza, justizia, zuzentasuna, eskuzabaltasuna, tolerantzia, laguntza, errespetua, gizarte erantzukizuna, parte hartze eraginkorra eta balio sistema desberdinak ezagutzea.

• Egiturazko maila, edo erakunde maila: maila hau GGKEek azpimarratzen dute, batez ere. Izaera makrosoziala duten balioekin dago lotuta, esaterako: globalizazioaren aurrean jarrera kritikoa izatea, nazioarteko harremanei buruz hausnarketa egitea, hiritartasun globala sentitzea.

Ikastetxeak

• GHrekin lotutako gaiei edo balioei buruzko ideia zehaztugabeak dituzte. Sarritan, GHren edukiak ohiko curriculumean sartu behar direla ulertzen dute; aldiz, ez dute irakaskuntzan izan beharreko jarrera moduan edo hezkuntza ikuspegi moduan ulertzen.

• “Elkartasuna” eta “Hegoaldeko herrialdeetako kulturetara hurbiltzea” nabarmentzen dira.

GGKEak

• Aipatutako balioen eta jarreren artean, nabarmenena “elkartasuna” da. Izan ere, balio hori erakunde gehienetan agertzen da. Horren ondoren, garrantzitsuenak, gizarte justizia, hiritarren partaidetza eta beste kulturekiko errespetua dira. Gutxiagotan bada ere, baina indar dezentez, hausnarketa ere hausnarketarako jarrera ere aipatzen da, ikaskuntza kritikoa izateko eta zuzentasuna, berdintasuna, bakea, erantzukizuna eta konpromisoa bilatzeko.

• Ondorengo hauek, berriz, aipatzen badira ere, ez dira bi erakundeetan baino gehiagotan errepikatzen: lankidetza, norberaren estimua, enpatia, elkarbanatzea, kontsumo kritikoa, askatasuna, demokrazia, atsegina eta zoriontasuna, generoa, ingurumena errespetatzea, inplikazio ekonomikoa eta boluntarioak.

Berritzeguneak

• GHk kultur aniztasunaren tratamenduarekin lotura zuzena du. Beraz, ikuspegi horrek gehien azpimarratzen duen balioa ikasle guztientzako “hezkuntzarako aukera berdintasuna” da.

• Bestalde, aurrekoarekin zerikusi handia duten beste hainbat gai ere aipatzen dira, esaterako, gizarte justizia, bizikidetza, elkartasuna eta errespetua:

> "Errespetu, elkartasun eta gizatasun balioetan hezten duzun heinean, GH lantzen ari zara".

## LANTZEN DITUEN GAI NAGUSIAK

3 gaikako multzo egitura daitezke. Horietan, berriz ere, tokian tokikoaren eta mundu mailakoaren arteko elkarrekintza ikusten dugu:

• Hegoaldekoak diren berezko gaiak lantzen dituztenak: herrialde horietako giza eskubideen egoera da nabarmenena, baita haurren eskubideen egoera ere. Beste gai batzuk ere aipatzen dira: uraren erabilera eta erabilgarritasuna, pobrezia, miseria eta bazterketa, gosea, etxebizitza, gerrako haurrak, "Hirugarren Munduko" edo "garapen bidean dauden" herrialdeen egoera soziopolitikoa.

• Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko erlazioa nabarmentzen dutenak: gai nabarmenenak —bai multzo honetan, bai beste multzoetan— immigrazioa eta kulturartekotasuna dira.

• Ikasleen eguneroko bizitzan oinarritzen direnak: ikasgelako bizikidetza, laguntasuna, familia, hezkuntza afektibo-sexuala, arauak, komunikazioa, talde lana, sexu abusuen prebentzioa, elkarrizketa eta gatazkak konpontzea, erabakiak hartzea, generoa.

### Ikastetxeak

• Honako esparruekin lotutako gaiak ere lantzen dira: diruaren banaketa eta bidezko merkataritza (etika harreman komertzialetan), estereotipoak eta arrazismoa, bakea, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harreman soziopolitikoak, kanpo zorra eta globalizazioa, berdintasuna eta desberdintasuna (herrialdeen eta taldeen artean, baita pertsonen artean ere), lankidetza, garapena, GGKEen lana, armen salerosketa eta gatazka belikoak, HIESa, ingurumena.

### GGKEak

• Oro har, erakundeek epe luze jakin batean etengabe lantzen dituzten gaiak aipatzen dituzte, edukiak urte batetik bestera aldatu egiten badira ere.

• Agertze kopuruaren arabera, honakoak dira gehien aipatzen diren gaiak: Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak, giza eskubideak eta generoa. Lehenengo gaian, kanpo zorra, globalizazioa eta pobrezia azpimarratzen dira. Ondorengo gaiak ere nabarmentzen dira: lankidetza, kultura eta bake hezkuntza. Gai hauek, berriz, aipatu egiten dira: merkataritza/bidezko merkataritza, haurren eskubideak, garapena, kulturartekotasuna, errefuxiatuak/immigranteak, elkartasun kultura, herriko ekonomiak/lurraren jabegoa.

• Honako gai hauek GGKE batek edo bik aipatzen dituzte: kultura, NBE, GGKE, partaidetza, balio hezkuntza, osasuna, ingurumena, esparru logikoa.

Berritzeguneak

• Gai nabarmenena kultur aniztasuna da, ikasle etorkinei lotutakoa; izan ere, gero eta ikasle etorkin gehiago dago hezkuntza sisteman. Kultur aniztasun hori kulturarteko hezkuntzaren bidez landu nahi dute (GHrekin lotura zuzen duela uste dute).

> "Etorkinak nondik datozen, zergatik datozen, horien herrialdeetako egoera nolakoa den, eta herrialde horietako egoera —gerra egoera— eta egoera ekonomia zer-nolakoa den aztertuz, ikastetxeetan gai hori guztia sartzeko aitzakia izan dezakegu. Edota, bestela, etorkinek oso ohitura eta kultura interesgarriak dituztela ikus dezakegu" (Irun).

• Giza eskubideak eta Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak ere azpimarratzen dituzte.

• Gai horiek guztiak norbanakoari, taldeari eta gizarteari dagokionez landu behar direla uste dute.

## 2. HEZKUNTZA SISTEMAK GH NOLA IKUSTEN DUEN

Ikastetxeak

• Osoko hezkuntza esanguratsu batean, hezkuntza sistemak ez dio GHri lehentasunik ematen; aldiz, beste kulturetara eta Hegoaldeko "pobreziara" hurbiltzeko aparteko ekintza moduan ulertzen du. Halere, denboran izandako bilakaera aztertuz, GHren egoera hobetu egin dela ikusten dugu, bai esparru teorikoan, bai praktikoan[3].

• GH ikastetxeetan sartzea banakakoen militantziaren baitan egongo da.

• GHri buruz gauzatzen diren ekintza gehienak GGKEen proposamenen baitan daude.

• GGKEek azken urteotan egindako esfortzua aintzat hartzen dute; halere, baliabideak behar bezala ez direla aprobetxatzen ikusten dute: batetik, erakundeen arteko koordinazio falta delako; bestetik, GGKEek egindako material didaktikoa, ikastetxeetara heltzean, sarritan galdu egiten delako. Izan ere, kalitatezko hainbat material didaktiko prestatzen badira ere, horiek askotan galdu egiten dira, eta horretan interesa izan zezaketenek ez dute horien berri izaten. Bestalde, heltzen diren material guztiak antolatzeaz arduratzen den pertsona bat egonez gero, aipatutako koordinazio falta dela eta (materialak egiteko eta bidaltzeko) lan handiagoa sortzen da, eta material horiek ordenatu besterik ez dira egiten, eta horien analisia, berriz, zaildu egiten da.

[3] GGKEak eta Berritzeguneak ados daude gai horretan. Halere, Berritzeguneek Kalitate Legea atzerapauso bat dela adierazten dute, LOGSEk zekartzan planteamenduekiko.

• Sarritan, hobeto lantzen da GH Lehen Hezkuntzan, ikuspegi globalak eta diziplina arteko ikuspegiak erabiltzen ohituta daudelako. Bigarren Hezkuntzan, berriz, GHri buruzko gaiak noizbehinka lantzen dituzte: programek gehiegizko karga dakartela eta, ez omen dute denborarik (ez dute ulertzen GHk ez dituela eduki berriak ekartzen, ikuspegi berriak baizik).

GGKEak

• Badira kontatu eta elkarbanatu beharreko oso esperientzia positiboak, jarduera praktikoan aurrera egiten jarraitzeko; izan ere, jarduera horretan daude GH lantzeko oztopo nagusiak. GH hezkuntza formalean sartzea errazteko, beharrezkoa da GGKEen eta ikastetxeen arteko harremanak areagotzea (gaur egun, harreman horiek eskasak dira), eta bi erakundeen arteko koordinazioa indartzea, ikasgelan eragina hobea izan dadin.

• Gutxi sakontzen da, eta noizbehinka lantzen da; ikastetxearen politikekin loturarik ez duten ekintza jakin batzuk besterik ez dira egiten.

• Irakasleei dagokionez, konpromiso txikia dutela uste dute, eta egindako ekintzak banakako militantzien baitan daudela. Irakasleek GHri buruzko prestakuntza gabezia dutela ere azaltzen dute. Azkenik, Hezkuntza Sailak prozesu horretan parte hartze handiagoa izatea eskatzen dute.

Berritzeguneak

• Berritzeguneek Bigarren Hezkuntzan GH sartzea zailagoa dela uste dute, ikastetxeetako antolakuntza egitura bera dela eta. Sailak edo mintegiak nekez koordinatzen dira elkarren artean, eta, horregatik, alor batean egindako ekintzak ez dira beste alorretan ezagutzen.

• Berritzeguneek ikastetxeetan GH noizbehinka lantzen dela azaltzen dute, landutako gaiei buruzko berariazko ekintzen bidez; ia inoiz ez dira zeharka lantzen. Izan ere, noizbehinka lantzen dira, curriculum inplizitu modura, eta ez, ordea, zeharka.

• Ikastetxeen eta GGKEen antzera, Berritzeguneek GH sartzea ia banakako pertsonen motibazioaren, interesaren eta lehentasunen baitan bakarrik dagoela ikusten dute. GH, beraz, ez da sartuko komunitate guztia ideia horiekin bat datorrelako.

• Sentsibilizazioa oso txikia dela uste dute, bai irakasleen artean, baita Hezkuntza Sailean ere. Sentsibilizazioa handitzea da lehenengo pausoa GH kalitatezko hezkuntzan funtsezkotzat jotzea lortzeko. Sentsibilizatzeko moduak desberdina izan beharko luke irakasleentzat, zuzendari taldearentzat eta Hezkuntza Sailarentzat; izan ere, horrela eginez gero, sentsibilizatzeko modua eragile bakoitzaren interesen eta kezken arabera moldatu beharko litzateke.

• Sarritan, ikastetxeei eskaintzen zaizkien proposamenak ohiko curriculumetik oso aldenduta daude; beraz, noizbehinka lantzeko gaiak direla ulertzen dute, eta, gainera, ekintza horiek egiteko esfortzu gehigarria egin behar dutela iruditzen zaie.

"Proposamenak curriculumetik oso bakartuta geratzen dira. Ekintza bakar moduan lantzen dira, ....ren astea moduan. Horrela egiteko ez daude gaizki, baina itxuragabe geratzen direla uste dut".

- Azaltzen dute eskolak ikasle guztiak era berdinean tratatzeko joera duela, ikasleen aniztasuna kontuan hartuta, eredu egokituak eskaini beharrean. Hezkuntza Sailak aurrerapausoak eman ditu aniztasunak ikasgelan ekar ditzakeen erronkak eta aukerak berariaz onartzen: horretarako, kargu berria sortu du, hezkuntza komunitateak, tresnak eta kultur aniztasunaren inguruan beste eragileekin egindako elkarlana koordinatzeko.
- Aurten berritzeguneetako langileak Mundilab proiektuaren jarraipena beren gain hartzeko prestatzen aritu dira, baita ikastetxeetan programa horri buruzko aholkularitza lanak egiteko ere. Hori guztia oso garrantzitsua dela uste dute, GH ikastetxeetan sustatzeko. Izan ere, horien partaidetzaren bidez, GH epe luzerako sar daitekeela uste dute. Berritzeguneek beren prestatzaileekin duten harremanari eutsi egin nahi diote, epe motzera, ertainera nahiz luzera. Izan ere, prestatzaile horiek esperientzia handia dute, eta hezkuntza ikuspegi horretan adituak dira.

## 2.1. GH IKASTETXEAREN POLITIKAN[4]

GHk hezkuntza sisteman duen egoera ezagutzeko, badugu beste erakusle bat: ikastetxeak, dituen politika guztien artean, zer politikaren baitan ekiten dion GHri, hain zuzen ere. Hartzen den politikak adieraziko du GH ikastetxearen ikuspegi globala den, edota pertsona jakin bati dagokion ardura den.

- Kasu gehienetan, GH Ikasgelako Programazioaren (IP) baitan sartzen da. Hori bat dator GH banakako militantziaren (irakasle jakin batzuen) baitan egotearekin.
- Ondoren, bigarren eta hirugarren tokian, Ikastetxeko Urteroko Programazioa (IUP) eta Ikastetxeko Hezkuntza Programa (IHP) daude. GH ikastetxeko politikaren maila horien baitan aurrerapauso handia da, eta hainbat aukera irekitzen ditu: halere, hori guztia ez dator bat ondoren egiten diren ekintzekin. Izan ere, ekintza gehienak noizbehinkakoak dira.



[4] Adierazitako itemak: Ikastetxeko Hezkuntza Programa (IHP), Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP), Ikastetxeko Urteroko Programazioa (IUP), Ikasgelako Programazioa (IP), Eskolaz Kanpoko Ekintzak, Noizbehinka, Ez dute lantzen, Bestela (adierazi).

## 3. GH-REN ERAGILEAK HEZKUNTZA FORMALEAN

Ondoren GHren eragilerik garrantzitsuenak aurkeztuko dira, baita horien erantzukizunak nola ulertzen diren ere. Atal honetako informazio guztia bezala, datuak hezkuntza komunitateko langileekin (bereziki irakasleekin, baina baita zuzendari taldeko eta pedagogia aholkutegietako zenbait kiderekin ere) egindako ekintzen —elkarrizketak, eztabaida taldeak, foroak— bidez, GGKEen zenbait ordezkariren bidez eta berritzeguneetako zenbait langileren bidez lortu dira. Alderdi hori azpimarratzen dugu, beste zenbait eragile ere aipatzen badira ere —Irakasle Eskola[5], familiak, Hezkuntza Saila eta argitaletxeak— horiekin ez baita ekintza zuzenik egin.

Ikastetxeko zuzendari taldea

- Ikastetxeak GHrekiko duen inplikazioa zuzendari taldea osatzen duten pertsonen profilaren eta interesen baitan egongo da.
- Oro har, GHk ez du lehentasunik, eta noizbehinka erabiltzeko gai baten modura ikusten da.
- Maiz, irakasleen eskuetan uzten du GH erabiltzeari buruzko erabakia; beraz, GH ikastetxearen politiken bidez sartu beharrean, banakako militantzien menpe geratzen da.
- Zuzendari taldeek gero eta interes handiagoa dute GHri buruz.

Irakasleak

- GHren esanahiarekin nahasketa dagoenez, irakasleek GH lan gehigarri gisa ikusten dute. Ez dute hezkuntza ikuspegi gisa ikusten.
- Zailtasun handiak dituzte GHri buruzko ekintzen plangintza egiteko, ekintza horiek gauzatzeko, ebaluazioa egiteko eta horiek sistematizatzeko. Gehien nabarmentzen duten kausa hori egiteko liberatutako denbora falta da.
- Saiakerak sarritan bertan behera uzten dira, esfortzu handia eskatzen baitu. Zuzendari taldeen, GGKEen eta Hezkuntza Sailaren aldetik laguntza gehiago eskatzen dute.
- GHri buruzko gaiak curriculumeko gai ofizialez kanpo lantzen dira.
- GH ikastetxearen politikaren parte eraginkorra denean, irakasleen asetasunak eta ongizateak gora egiten du, eta, zalantzak, berriz, gutxitu egiten dira[6].

[5] Ikerketaren ekintzak egin ondoren, EHUko Irakasle Eskolako Bizkaiko Egoitzako Practicum Zuzendariordeari elkarrizketa bat egin zitzaion, eta han zenbait emaitza jakinarazi ziren.

[6] Mundilab programan lanean diharduten ikastetxeetako pertsonek ikerketan partaidetza esanguratsua izan zutela ikusi da; eta zentroetan aurkitzen zituzten oztopoak gutxitzea lortzen ari direla (laguntza, plangintza, gauzatzea, ebaluazioa eta GHri buruzko ekintzen sistematizazioa).

## Hezkuntza Saila

- GHri ez dio lehentasunik ematen kalitatezko hezkuntzaren baitan. Ondorioz, laguntza ekonomiko eta giza baliabide gutxi bideratzen ditu GH sustatzeko.
- Hezkuntza saila ezegonkorra da zuzendariak aldatu egiten direlako, besteak beste. Hori eragozpen handia da antolamendu jarraitu eta koherente bat ezartzeko. Iritzi publikoaren aurrean irudi egokiari eusteak kezka handiagoa sortzen dio GHk dakarren hezkuntza ikuspegia sendotzea eta ikuspegi horri jarraipena ematea baino.
- Irtzi publikoaren aurrean irudi egokiari eusteak kezka handiagoa sortzen dio GHk dakarren hezkuntza ikuspegia sendotzea eta ikuspegi horri jarraipena ematea baino.
- GH hezkuntza formalean sustatzeak ekarriko lituzkeen ondorioen erantzukizuna ez du bere gain hartzen. Adibidez, GGKEek ikastetxeetan GHri buruz egiten dituzten ekintzetarako dirulaguntzak Garapenerako Lankidetza Zuzendaritzak ematen ditu eta ez Hezkuntza Sailak.
- Gai horri buruz eskaintzen dituen prestakuntza ikastaroak ez dira nahikoak, eta ez du etengabeko prestakuntza bultzatzen. Irakasle izango direnekin ere (Irakasle Eskola) ez du GHri buruzko prestakuntzarik sustatzen.
- Egiten ari denari buruzko informazioa falta zaio. Ikastetxeek ere ez dakite Hezkuntza Sailak zer egiten duen GHri dagokionez.
- Berritzeguneek beharrezkotzat jotzen zuten Hezkuntza Sailak GH eta gainerako zeharlerroak bultzatzea, horiek guztiak berritzeguneetan bertan eta ikastetxeetan lan zitezen. Hezkuntza Sailak gai horri buruz duen interesaren erakusle bat hau izango litzateke: Hezkuntza Ikuskaritzak berariazko jarraipena egitea, ikuspegi hori zer mailatan ezartzen den ikusteko.
- Hezkuntza Saila sentsibilizazio estrategietan barneratu behar da.

> “Garrantzitsuena Hezkuntza Saila sentsibilizatuta egotea izango litzateke. Izan ere, ikastetxeetan gauzatzen diren lanerako ildoen oinarriak zentro bakoitzean badaude ere, zenbait dinamika buruzagitzak sustatzen ditu”.



## Berritzeguneak

- Berritzeguneen lan egiteko modua ikastetxeetako eskaerei erantzutea da, haiek zuzenean eskatu dutelako edo behar bat hauteman dutelako. Kasu gehienetan GH lantzeko beharra ez dutela nabaritu esaten dute. Halere, GH zuzenean lotzen dute kultur aniztasuna lantzearekin; gai horrek, gaur egun, lehentasuna du ikastetxeetan.
- Berritzeguneek ikastetxeak GHri buruz sentsibilizatu behar direla azaltzen dute; izan ere, gai horri buruzko oso eskaera gutxi jasotzen dituzte. Irakasleek, oro har, ez dute GHn inolako interesik, irakasle jakin batzuek soilik dute interesa.

• Irakasleen ustez, Berritzeguneek ez dituzte behar adina laguntzen zehar-lerroak (horien artean, GH) ezartzen. Eskuarki GH ez da bultzatzen (beste edozein zehar-lerro bezala) sailak ez diolako inolako lehentasunik ematen eta ez dutelako hori gauzatzeko programarik jasotzen. Gainera, ez dago zehar-lerroak bultzatzeko inor izendatuta, duela zenbait urte egin ohi zen bezala. Berritzeguneetan, berriz, duela bi urte, aniztasunari eta bizikidetzari buruzko aholkularitza lanak egiteko pertsona bat izendatu zen. Horrekin, berritzeguneetan GH berriz hedatzeko aukera ikusten da.

• GGKEen, ikastetxeen eta Hezkuntza Sailaren arteko koordinazioa eta komunikazioa bideratzeko erakundea izan daitezkeela uste dute.

• Berritzeguneak koordinazio bidea izateko proposamena interesgarria iruditzen bazaie ere, zeregin hori Hezkuntza Sailak berak arautu behar duela uste dute laguntza eta orientazio gune horiek. Halaber, koordinazio lan hori gauzatzeko giza baliabide gehiago eskatzen dituzte.

• GHri lotutako zenbait gai lantzen ari badira ere, ez dago GHri buruzko berariazko programarik.

• Azken urte honetan zehar Mundilab programaren aholkulari izateko prestatzen aritu dira. Baiezkoa eman duten ikastetxeetan proiektua sendotzen ari da, eta, ondorioz, beste ikastetxe batzuk ere interesa adierazten hasi dira. Hemendik aurrera, berritzeguneek beharrezkotzat jotzen dute GHn adituak diren GGKEekin harremana areagotzea eta sistematizatzea.

> “Prestakuntzaren ondoren, proiektuaren (Mundilab) jarraipena eta aholkularitza lanak egingo dira. Ondorioz, beharrezkoa da GHri buruzko materialak dituzten GGKEekin harremanetan jartzea, edo, hobeto esanda, GGKE horiekin dugun harremana sendotzea”.

> “Arazoa ez da Berritzeguneena, ez da mugitzen ez dela, gizarteak arazo horrekiko interesik ez duela baizik.
>
> Hau da, gobernuak ez badie zehar-lerroei garrantzirik ematen, zentzuzkoa da ikastetxeek ere horiei garrantzirik ez ematea”.

Irakasle Eskola

• Gehien-gehienetan, Irakasle Eskolako ikasleak eta irakasleak ez dituzte deitzen ikastetxeak helburu dituzten ekintzetan parte hartzeko. Horrelako ekintzetan parte har dezaten lortzeko bideak bultzatzea, ordea, beharrezkoa da; horrela, irakasleek, beren prestakuntzaren hasiera-hasieratik, beharrezko tresna kontzeptualak eta praktikoak eskuratu ahal izango dituzte hezkuntzan GHren ikuspegitik lan egiteko.

## GGKEak

- Ikastetxeetan ez dago gunerik GGKEentzat. Ondorioz, horien proposamenak ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitzea zailago bihurtzen da, baita GGKEen eta ikastetxeen arteko harremanari jarraipena ematea ere.
- GGKEen proiektuak sakabanatuta daude, horien artean koordinaziorik ez baitago. Horregatik material eta eskaintza “bonbardaketa” gertatzen da. Ikastetxeen eta GGKEen artean klientelismo harremanak sortzen dira.
- Egiten dituzten material gehienak kalitate pedagogiko handikoak dira, baina, sarritan, ohiko curriculumaren kanpo dauden edukiak proposatzen dituzte.
- Hezkuntza komunitatearentzako berariazko prestakuntzarako ekintzak eta aholkularitza ekintzak falta dira.
- Hezkuntza eremuan ekintzak egiten direnean, irakasleekin tratu pertsonala izatea oso positibotzat hartzen da.
- Familiak ez dituzte sartzen Hezkuntza Formalean jarduten dutenean.
- Gainerako eragileekin duten harremana, gehienetan, noizbehinkakoa da; ez da sistematikoa.
- GGKEei buruzko iritzi desberdinak daude. Zenbait GGKE ontzat hartzen dira, eta, beste batzuk, berriz, ez.
- Kasu batzuetan, badirudi GGKEak “hezkuntza norabide batean aldatzea eragin beharrean, hezkuntza klasikoan bere lekua bilatzen ari direla”.
- GGKEen ustez, sarritan, beren proposamenak ez dira aintzakotzat hartzen, irakasleek ez baitiete jaramonik egiten.



## Familia

- Irakasleen ustez, familiek seme-alaben hezkuntza eta gizarteratzea eskolaren esku uzten dute. Ondorioz, irakasleek erantzukizun gehiegi dituzte.
- Oso zaila da familiak ikastetxeko ekintzetan eta erabakietan parte hartzea; halere, hori lortzen denean, oso positiboa izaten da. Familiaren partaidetza hain txikia izatearen arrazoietariko bat, besteak beste hau da: familiak ez dira eskolaren baitan antolatzen. Beraz, familiek parte hatzeko dituzten aukerak oztopatu egiten dira. Familiak eskolaren baitan antolatzearen adibidea Ikaskuntza Komunitateak dira.

  “Familia izugarri sar daiteke eskolan ateak irekitzen bazaizkio”.
- Historian zehar, familiei eskainitako prestakuntzaren helburua beren seme-alabak ulertzea eta laguntzea izan da. Ikuspegi hori aldatu egin behar da: prestakuntzak gurasoentzat beraientzat izan behar du, eta, horrek seme-alabengan eragina izango du.

"Harremanei buruz hitz egiten dugunean, gurasoen arteko harremanei buruz ari gara, eta ez seme-alaben arteko harremanei buruz. Seme-alabek ingelesez hitz egitea nahi badugu, hitz egin dezatela lehenik eta behin gurasoek; horrela, seme-alabek ere ingelesez hitz egingo dute".

- Ikastetxeek familiek era eraginkorrean parte hartzeko bideak bultzatu behar dituzte.

Argitaletxeak

- Ikastetxe batean —edo ikasmaila batean— argitaletxe desberdinekin lan egiteak irakasleen arteko koordinazioa oztopatzen du. Testuliburuak lan tresna moduan erabili behar dira. Hezteko zeregina, ordea, profesionalaren ardura da.
- Gizartearen eta Hezkuntza Sistemaren eskaeretara moldatzen da.
- Pedagogia aldetik kritikatu egiten dira, ez baitira dinamikoak ezta berritzaileak ere.
- GH ez dute sartzen benetan zeharkakoa den era batean.
- Arazoa ez dago argitaletxeetan bakarrik, nahiz eta eskuliburu batzuk benetan eskasak izan; izan ere, benetako balio hezkuntza bat gauzatzeko, testuliburu on bat baino (beharrezkoa bada ere) irakasleek jarrera profesionala aldatzea da beharrezkoa.
- Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanei buruzko gaiak lantzerakoan testu ofizialetan aurrerakada bat ikusten da.

## 4. METODOLOGIA

NOLA LANTZEN DA GH IKASTETXEETAN?

- **Noizbehinkako ekintzak:** GH noizbehinka lantzen da "Lantzen dituen gai nagusiak" atalean (gai honen hasieran) azaldutako gaiei buruzko ekintzen bidez.
- **Zehar-lerroa:** Zenbait ikastetxetan GHk duen zehar-lerro ikuspegitik lantzen da; halere, GH ez da ikasgai guztietan sartzen. Berriz ere, hori guztia irakaslearen kezkaren eta gogoaren baitan egongo da. GGKEek eta ikastetxeen ordezkariek egindako foroetan egokiena GH hezkuntza ikuspegi moduan hartzea zela adierazi zen arren, GGKE eta ikastetxe gutxi batzuek soilik hartzen dute horrela. Eta Mundilab programako ikastetxeak izan dira, batez ere, ikuspegi hori hartu dutenak.

ZER EKINTZA EGITEN DIRA?

- **Material didaktikoak:** Ikastetxeek GH, eskuarki, GGKEek egindako material didaktikoen bidez lantzen dute. Izan ere, material horiek kalitate pedagogiko handia dutela uste dute, baita dinamikoak eta berritzaileak direla ere. GGKEen artean koordinazio falta ikusten da eskaintzen dituzten materialei dagokionez eta horiek ikastetxeetara bidaltzen dituzten datei dagokionez. Material horiek ez dira jarraian erabiltzen, ezta era sistematikoan ere.

- **Erakusketa, Hitzaldiak eta Kanpainak:** Gehien egiten diren 2., 3. eta 4. ekintzak dira, hurrenez hurren. Kasu batzuetan ekintza horiek hainbat ekintzaz osatutako programa zabalago baten barruan daude. Halere, gehienetan, aparteko eskaintza zehatz baten moduan heltzen dira ikastetxeetara.

- **Prestakuntza:** Bereziki irakasleen prestakuntza, zenbait gai jakini buruz. GH hezkuntza ikuspegi moduan ulertzeko berariazko prestakuntza jarraitua behar da.

- **Berritzeguneak bultzatzen dituen ekintzak lau motatakoak dira:** Moduluak, mintegiak, ikastaroak eta jardunaldiak. Halere, ekintza bakar batek ere ez du GH berariaz lantzen. Berritzeguneek ekintza hauetarako gaiak Hezkuntza Sailak ezarritako ildoen arabera hautatuko dituzte, baita ikastetxeen beharren eta eskaeren ebaluazioaren arabera ere. Une honetan, ikastetxeen beharra eta eskaera kultur aniztasunari eta immigrazioari buruzkoa da. Irakasleak kezkatuta daude ikastetxeetan etorkinak gero eta ugariagoak direlako. Beraz, gai horri buruzko mintegietan irakasle gehiagok parte hartzen dute.

- **Senidetzeak:** Irakasleen eta ikasleen ekintza gogokoenetakoa da, beste errealitate batzuekin harremanetan jartzeko aukera ematen baitie. Senidetzeen bidez, curriculumeko zenbait ikasgaitan beste kultura eta bizimodua batzuk ezagutzeko aukera dute.

- **Mundilab:** Proiektu horrek ikastetxe bakoitzaren errealitatera moldatzeko duen gaitasuna positiboki balioesten da. Gainera, ekintzak (kanpotik etorritakoak edo ikastetxean bertan sortutakoak) koordinatzeko eta horiei koherentzia emateko eskaintzen duen aukera ere aintzakotzat hartzen da. GH teorikoki eta praktikoki lantzea errazten du. Proiektu hori, hein handi batean, honako arrazoiagatik balioesten da hain positiboki: curriculumean sartu beharreko edukien multzo bat izan beharrean, Mundilab metodologia bat delako, hau da, irakaskuntza eta ikaskuntza ulertzeko modu bat.

- **Bestelakoak:** Antzerkia eta ipuin kontalaria (oso positiboki balioesten dira), dirua eta materialak jasotzeko ekintzak (adibidez, azokak eta Domund kanpaina), haur bat besoetako egitea, auzoko parrokiarekin lan egitea.

BALIABIDEAK

- Eskura dauden baliabideak.
- Horrekin lotura duten gaiei buruzko materialak.
- GH ikuspegi moduan ulertzeko motibazioa duten langileak, eta horren alde lan egiteko eta ekintzak antolatzeko prest dauden langileak dira ikastetxeentzat baliabide garrantzitsuenak.
- Eskura ez dauden baliabideak, baina beharrezkotzat jotzen direnak:
    - **Ikastetxeak:** Berariazko langile liberatuak izatea. Finantzaketa iturri berriak izatea.
    - **Baliabide Pedagogikoak:** Elkarren artean koherenteak izatea eta GH jarraian lantzeko aukera ematea. Eskola programara eta ikastetxeko errealitatera moldatzea, eta euskaraz eta ingelesez erabiltzeko aukera izatea.
    - **GGKEak:** GGKEen errealitatea ikastetxeetara hurbiltzea. Etengabeko harremana izatea. GGKEen ordezkariek ikastetxeetan zuzenean parte hartzea. Baliabide pedagogikoen zentro berri bat sortzea.
    - **Berritzeguneak:** Berariazko langile liberatuak izatea. Hezkuntza Sailak benetan laguntzea. GGKEekin zuzeneko komunikazioa, aholkularitza lanetan elkarren artean koordinatzeko.

## 5. LORTUTAKOA

- **Ikasleak:** Beste errealitate batzuei buruzko sentsibilizazio eta kontzientzia maila handiagoa dute: errealitate horiek ikasleen eguneroko bizitzara hurbildu dira. Gizartean parte hartzeko eta boluntarioen mundura sartzeko adorea eman zaie. Arazoez jabetu dira, eta horiek elkarrekin lotuta daudela ikusi dute, tokian tokikoa eta globala lotuta daudela. Egoera desberdinetara moldatzeko gaitasun handiagoa dute, errespetuz eta erantzukizunez. Hori guztia mesedegarria da ikasleen osasun mentalarentzat eta afektiboarentzat.
- **Irakasleak:** Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanei buruzko sentsibilizazio handiagoa dute. Lantzen dituzten arazoen arteko erlazioetan sakondu dute, eta horiek hobeto ulertu dituzte. Partaidetza eraginkorra eta konpromisoa areagotu egin da; izan ere, ikastetxeak GH bere gain hartzen duen heinean, GH garatzeko borondatea eta asetasuna ere areagotzen da. Interes profesionala eta pertsonala ere handiagoa da, gai interesgarriak lantzen direlako, eta hezkuntza modu tradizionalaren ohiturak bertan behera uzten dituelako.
- **Ikastetxea:** Zenbait ikastetxetan, GHri buruzko lanak koordinatzeko eta bideratzeko arduradun bat izendatu da. GH hezkuntza komunitate guztiak bere gain hartzen duen heinean, ez da ikusiko lan gehigarri baten moduan. Zenbait ikastetxetan bizikidetza nabarmen hobetu dela ikusten da.

• **Familia:** Zenbait familiak GHri buruzko noizbehinkako ekintzetan parte hartzea lortu da. Hainbat ikastetxek karitate ekonomikoa gauzatzea positibotzat hartzen dute, haur bat besoetako eginez, dirulaguntzen edo laguntza materialaren bidez.

• **Esperientzia jakinak:** Mundilab esperientzia ezagutzen duten eragileek oso ongi balioesten dute, hainbat arazori konponbidea ematen diela ikusten dutelako: ikasgaien zeharkako ikuspegiari, ekintzen plangintzari eta horiek gauzatzeari, eta irakasleen arteko koordinazioari.

## 6. ZAILTASUNAK

• Ez dago behar adina **denbora liberatua** GHri buruzko ekintzen plangintza egiteko eta horiek gauzatzeko eta ebaluatzeko. Horrek guztiak, bereziki, ikastetxeetan du eragina, baita GGKEetan ere.

• Zailtasunak daude GGKEek egindako **proposamenak** hezkuntza programan **sartzeko**. Izan ere, irakasleen arteko komunikazioa eta koordinazioa eskasa da, baita GGKEen artekoa eta bi talde horien artekoa ere.

• GGKEen proposamenek —material didaktikoak, bereziki— ikastetxeak "bonbardatu" egiten dituzte. Gainera, material horiek berrikustea eta moldatzea **lan gehigarri** handia da.

• Lantzen diren gaiak **ez dira sakontzen**. GHri jarraipena emateko oztopo asko daude.

• Ez dira berehalako emaitzak ikusten, GHn emaitzak **epe luzekoak** baitira. Ondorioz, irakasleen motibazioa gutxitu egiten da. Bestalde, GGKEentzat ere zaila da egoera hori finantzatzen dituzten erakundeen aurrean justifikatzea.

• **Finantzaketarako** zailtasunak, bai GGKEk, bai ikastetxeek. Ikastetxeek, berritzeguneekin batera, bestelako finantzaketa bideak aurkitu behar direla aldarrikatzen dute, Hezkuntza Sailaren eskutik jasotako dirulaguntza osatzeko.

• Gai jakin batzuei buruzko kezka ikastetxean bertan sortzen denean, ez dute jakiten norengana jo behar duten.

• Hezkuntza jardueran **zehar-lerroak** sartzeko zailtasun handiak daude.

• Hezkuntza komunitatea osatzen duten gehienek konpromisorik hartzen ez dutenez, erantzukizunak beti pertsona berberek hartzen dituzte beren gain. Horren ondorioz, denborarekin, GHren **esperientziak bertan behera** geratzen dira.

• Ikasleak **motibatzeko** zailtasunak daude.

• **Hezkuntza Saila** eta instituzio publikoak inplikazio txikia dute, eta ez dute behar adina laguntza ematen.

• **Kezka sozialak** bakoitza bere aldetik iristen dira eskolara.

• GHk bultzatzen dituen **balioak** gizartean nagusi diren balioekin bat ez datozela ikusten da.

• Berritzeguneek irakasleak motibatzea zaila dela azaltzen dute. Bestalde, GHren kontzeptuak argi ez daudela ere esaten dute, ez ikastetxeetan, ezta berritzeguneetan ere.

# *Kapitulo 4.* **Hobetzeko proposamenak**

Metodologiari buruzko atalean, azaldu ditugu zer jakin nahi genuen eta informazioa nola jaso genuen. Atal honetan, berriz, ikerketan zehar sortuz joan ziren proposamenak aurkeztuko ditugu. Proposamen horietatik, egokienak eta gauzagarrienak zein diren aztertuko dugu, eta proposamen bakoitzak zer eragileren partehartzea dakarren ere aztertuko dugu.

Proposamenak zehatz-mehatz azaldu aurretik, guztiak aurkeztuko ditugu kontuan hartutako bi aldagaien arabera ordenatuta:

- Bakoitzaren egokitasuna eta premia.
- Bakoitza gauzatzeko dagoen aukera.



| PROPOSAMENA | Egokitasuna/ premia | Gauzatzeko |
|---|---|---|
| GH Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan sartzea.[1] | 1.a | 2.a |
| GGKEen arteko koordinazioa hobetzea katalogo analitiko baten bidez. Katalogo horretan GGKE bakoitzak ikastetxeentzat dituen proposamenak bilduko dira. | 2.a | 3.a |
| GHri buruzko etengabeko prestakuntza liberatua eskaintzea, teorikoki lantzeko, ulertzeko eta praktikan gauzatzeko. | 3.a | 4.a |

[1] Lehenengo bi proposamenek puntuazio berdina jaso zuten, bai egokitasunari/premiari dagokionez, baita gauzatzeko aukerei dagokionez ere. Lehenengo proposamenak ED/EE aukeran puntu gutxiago zituelako aurkeztu dira ordena horretan.

| | | |
|---|---|---|
| Baliabide pedagogikoen zentroak indartzea, horiek eskuragarri eta ikusgai bihurtuz. | 4.a | 1.a |
| Testu ofizialak berrikusteko diziplina arteko batzordea sortzea. Batzorde horren helburua hau da: testu ofizialek GH benetan barne hartzen dela bermatzea, eta kulturarteko eta hezkidetzaren nahiz ingurumenaren aldeko prozesuak erraztea. | 5.a | 10.a |
| GH Irakasle Eskolaren diplomaturetan sartzea. | 6.a | 7.a |
| Ikastetxeetan pertsona bat ordu jakin batzuetarako liberatzea, GHri buruzko gaiak koordinatu, GHri buruzko prestakuntza jaso eta gai horri buruzko aholkularitza lanak egin ditzan. | 7.a | 11.a |
| Hezkuntza Saila finantzaketa deialdi ofizial bat egitea, hezkuntza sisteman GHri buruzko proiektuak gauzatzeko. Dirulaguntza horiek ikastetxeek eta GGKEek eskuratu ahal izango lituzkete. | 8.a | 6.a |
| Hezkuntza Sailak GHri buruz duen hezkuntza politika aldatu egingo du, hezkuntza komunitatea eta gizartea gai horren aldeko apustua egiten ari dela ikusten duenean. Horretarako, GGKEek aldaketa politikoak errazteko duten gaitasuna indartu egin behar dute. | 9.a | 13.a |
| Berritzeguneak GGKEen eta ikastetxeen arteko komunikazio bide bihurtzea. | 10.a | 5.a |
| GGKEen eta ikastetxeen ordezkariez osatutako lan batzorde bat sortzea, berritzeguneek koordinatuta, GHren edukiak eta metodologia adostu ahal izateko, eta abian jarritako prozesuak elkarrekin ebaluatzeko. | 11.a | 9.a |
| GGKEek egindako material didaktikoak ikastetxeetako curriculumera eta testuliburu ofizialetara egokitzea. | 12.a | 16.a |

| | | |
|---|---|---|
| Familiak, benetako eragiletzat hartuta, GHren barne hartzea, GGKEek edo ikastetxeek gai horri buruz egiten dituzten proiektuetan. Hori guztia partaidetza gogotsua bultzatzeko bideak sortuz lortzen da. | 13.a | 14.a |
| GH juridikoki onartzea, hezkuntza ikuspegitzat hartuta. | 14.a | 8.a |
| GGKEak ikastetxeen dinamikan sartzea, klaustroetan parte hartuz, GGKEek egindako materialak ikastetxearen errealitatera egokitzeko. | 15.a | 15.a |
| GH curriculumean berariazko ikasgai gisa sartzea. | 16.a | 12.a |

Jarraian ikastetxeek, berritzeguneek eta GGKEek gehien nabarmendutako proposamenak azalduko dira; izan ere, proposamen horiek izan ziren, guztien ustez, egokienak/premiazkoenak eta gauzatzeko aukera gehien zituztenak.[2]

## 1. GH ikastetxeko hezkuntza proiektuan benetan sartzea



Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP) ikastetxe bakoitzaren ildo estrategikoen gida bat da. Horren arabera, ikastetxe bakoitzak lortu nahi dituen hezkuntza helburuak eratzen ditu. GH Hezkuntza Proiektuan sartzen bada, ezkutuko curriculumetik atera eta ikastetxeak sustatu nahi duen hezkuntza ikuspegiaren baitan egongo da. Hezkuntza Proiektuan ikastetxeak irakatsi nahi dituen balioak agertzen dira, ikastetxeak nolako pertsonak hezi nahi dituen, alegia.

- Proposamen hori ikastetxeetan sortzen da: ikastetxean GHren erantzukizun gehiena beren gain duten pertsonek adierazten dute, hain zuzen. GH, sarriegi, banakako militantzien baitan dago, eta pertsona horientzat lan gehigarria da; ekintza horietan jarduteko ez diete lanorduetako denborarik

[2] Taulan proposamenak eztabaida taldeetan eta galdeketan idatzi eta erabili ziren moduan aurkezten dira. Ekimen horien helburua GHren egoera hobetzeko estrategiak adostea zen. Ondorengo aurkezpenean, gauza daitezkeen proposamen guztiak batera erakusten dira; eta baztertu egin dira, berriz, egokitasun edo gauzatzeko aukera gutxi zituzten proposamenak (hauek hain zuzen: GH juridikoki onartzea, hezkuntza ikuspegitzat hartuta; GGKEak ikastetxeen dinamikan sartzea, klaustroetan parte hartuz, GGKEek egindako materialak ikastetxearen errealitatera egokitzeko; GH curriculumean berariazko ikasgai modura sartzea).

ematen. GH IHPren baitan sartzeak ez du esan nahi ikastetxeek eta hezkuntza komunitateak eskatzen diren adina denbora eta baliabide emango dituztenik; pertsona horien lana, ordea, erraztu egingo luke. Izan ere, gaur egun, pertsona horiek hezkuntza egituraren aldetik laguntza gutxi jasotzen dutela sentitzen dute.

• Zenbait ikastetxetan jada agertzen da GH IHPn, nahiz eta batzuetan GH izena ez den agertzen bere horretan. Zenbaitetan, GHri lotutako definizioen bidez geratzen da agerian; esaterako, "balio hezkuntza" edo "kulturarteko hezkuntza" agertzen dira.

• Proposamen hau ikastetxeek erraz onar dezaketela ikusten da.

• Lanean dihardutaten eragileen artean, ondorengoen partehartzea oso garrantzitsutzat jotzen da: zuzendari taldea —ikastetxean egingo den guztia bultzatu behar dute; talde horren onarpenik gabe, oso zaila da proposamen bat aurrera ateratzea—; pedagogia orientazioko saila; hezkuntza sisteman GH maila teorikoan eta praktikoan lantzen duten GGKEak edo erakundeak —GHren esanahiari, inplikazioei eta aukera praktikoei buruzko aholkularitzaren bidez—.

## 2. GGKE-en arteko koordinazioa eta GGKE-en eta ikastetxeen arteko koordinazioa sustatzea, GH-ren baliabideak hedatzeko eta banatzeko mekanismoak hobetuz

Ikerketan zehar, ikastetxeek gehien azpimarratzen duten alderdi bat hau da: GGKEetatik heltzen diren proiektuak oso sakabanatuta daude. Horregatik, ikastetxeek gida bat eskatzen dute, erabil daitezkeen ekintza eta material guztiak bilduko dituena. Halere:

• Badira baliabideei buruzko gidak[3]: beraz, agian, arazo nagusia material horiek banatzeko eta ikusgai egiteko estrategiak dira. Gure arreta eta ahalegin guztiak gai horretan jarri beharko genituzke.

• GHri buruzko proposamenak banatzeko eta zabaltzeko, baliabide eta aholkularitza pedagogikoko zentroak barne hartu behar dira: alde batetik, horien erabilgarritasuna eta ikusgaitasuna errazago bihurtzeko, eta, bestetik, erakundeek horrelako zentroei berme handiagoa eman diezaioten.

• Ikastetxeetara bidaltzen diren proposamen asko galdu egiten dira, eta ez dira heltzen baliabide horiek erabiltzeko interesa duten pertsonen eskuetara. Horren aurrean, proposamen hau egiten da: materialak ikastetxe bakoitzeko GHri buruzko ekintzen eta sentsibilizazioaren arduradunari zuzenean bidaltzea. Horrela, materialak gehiago eta hobeto erabiliko dira.

[3] Web orri hauetan bi gida begiratu daitezke:
http://www.vitoria-gasteiz.org/cooperacion
http://www.congde.org/guia/html/materiales.html

• Baliabide erabilgarriak, nagusiki, irakasle finkoei bidali behar bazaizkie ere, bitarteko irakasleek ere informazio hori erraz eskuratzeko aukera izan beharko lukete. Horrela, baliabide horiek erabili ahal izango dituzte, eta, urte bakoitzean zehar lan egiten duten ikastetxeetan horien berri eman ahal izango dute.

## *3. Ikastetxeetan pertsona bat ordu jakin batzuetarako liberatzea, gh-ri buruzko gaiak koordinatu, GH-ri buruzko prestakuntza jaso eta gai horri buruzko aholkularitza lanak egin ditzan*

• Etengabeko prestakuntza praktikoarekin, hasteko, jarraitzeko eta ebaluazioak egiteko zalantzak eta zailtasunak gutxituko liratekeela ikusten da.

• Pertsona bat liberatzea garrantzitsua da hainbat arrazoirengatik. Lehenik eta behin, pertsona horrek denbora gehigarria behar du gainerako irakasleak koordinatzeko, materialak ezagutzeko eta GGKEekin eta baliabide pedagogikoko zentroekin harremanetan jartzeko, besteak beste. Bigarrenik, pertsona bat liberatzeak prestakuntzari garrantzia ematen zaiola adierazten du, prestakuntza ez baita irakasleen denbora librean gauzatuko.

• Prestakuntza pertsona horren lantokitik hurbil ematea komeni da; beste aukera batzuk ere azter daitezke: prestakuntza ikastetxean bertan ematea edo inguruko ikastetxeetako irakasleak ikastetxe jakin batean biltzea. Horrela, prestakuntza errazago molda daiteke eskola orduetara.

• Prestakuntza horrek aplikazio praktikoa azpimarratu behar du: GHren oinarri teorikoak ezagutzea interesagarria bada ere, GHk ikasgelan dituen aukera praktikoetan oinarritu behar du. Metodologiari eta jarreren sustapenari buruz jardun behar du, eta ez eduki jakinei buruz.

• Pertsona liberatuek ikastetxeetako zuzendari taldeen eta Hezkuntza Sailaren bermea izan behar dute: ezinbestekoak dira giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak, jarduera hori gainerako irakasleentzat lan zama handiagoa ez izateko.

• Sailaren eta ikastetxearen onarpena ez da prestakuntza orduetara mugatu behar. Prestatutako pertsonentzat guneak antolatu beharko dituzte, eta une jakin batzuk zehaztu, gainerako irakasleei ikasitako edukien berri emateko aukera izan dezaten.

• Prestakuntzaren ezaugarriak irakasle taldearen errealitatera egokitzeko, beharrezkoa da GGKEen, erakundeen —prestakuntza proposamenak antolatzen dituztenak— eta irakasleen arteko komunikazioa hobetzea eta horri eustea. Horrela, prestakuntzaren ezaugarriak irakasle taldearen errealitatera moldatuko dira.

## 4. GH irakasle eskolaren diplomaturetan eta antzeko ikasketetan sartzea

Irakasle Eskolako, Pedagogia fakultateetako, Gizarte Zientzietako eta antzeko ikasketetako ikasleen prestakuntzak GH barne hartzea bermatzeko, hau proposatzen da:

- GH ikuspegi pedagogikotzat hartzea helburu duten ekimenak Unibertsitateko Fakultate horietara ere bideratzea; izan ere, GH jada lanean diharduten irakasleekin lantzen da, irakasle horien hasierako prestakuntzari ez zaio bahar adinako garrantzia ematen.
- Ikasketa horietako ikasleekin lan egitea, baita unibertsitateko irakasleekin ere.
- EHUn Irakasle eskolako ikasleen prestakuntzaren baitan GH barneratzeko ekimenak gauzatzen dituzten langileak eta GGKEak elkar ezagutzea eta horien arteko koordinazioa erraztea.
- Ekimen horiek bideratzea, horien azken helburua GH ikasketa horietako ikasketa planetan sartzea izan dadin.

## 5. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantzaketa deialdi ofiziala egitea, hezkuntza sisteman GH-ri buruzko proiektuak gauzatzeko dirulaguntza horiek ikastetxeek eta GGKEek eskuratu ahal izango lituzkete

Proposamen horren helburua Hezkuntza Sailak aurrekontuaren zati bat GHri buruzko ekintzak finantzatzeko eta ekintza horiek eusteko erabiltzea da. Ekintza horiek ikastetxeetan eta irakaskuntzarekin zerikusia duten unibertsitateko fakultateetan gauzatuko dira, eta honako helburua dute:

- Hezkuntza Sailak ekimen horiek fakultate horien hezkuntza planaren baitan egotea onartzea;
- ikastetxeek GH era egokian barneratzeak dakartzan kostu ekonomikoei aurre egin ahal izatea. Laguntza ekonomiko horrek GHrekin lotutako ekimenak finkatzen laguntzen du, dirulaguntzekin baliabide material gehiago eta giza baliabide gehiago lortu baititzakete, baita aholkularitzarako, laguntza sareetarako eta prestakuntzarako aukera gehiago ere;
- Hezkuntza Sailaren eta Gizarte Gaietako Sailaren —bereziki Nazioarteko Lankidetzako eta Immigrazioko Zuzendaritzak— arteko elkarlanak aurrera egitea.

## 6. GGKE-en eta ikastetxeen ordezkariez osatutako lan batzorde bat sortzea, berritzeguneek koordinatuta, GH-ren edukiak eta metodologia adostu ahal izateko, eta abian jarritako prozesuak elkarrekin ebaluatu ahal izateko

Ikastetxeei eta GGKEei elkarren arteko harremana jarraituagoa izatea gustatuko litzaieke. Egoera horren kausa nagusia hau da: elkarren artean komunikazio zuzena eta jarraitua falta da.

Proposamenaren asmoa elkargune bat bultzatzea da, ikastetxeen GHri buruzko ekintzen plangintza eta horien ebaluazioa egin ahal izateko. Horrela, GH lantzean topatzen diren zailtasun ohikoenei aurre egingo zaie. Zailtasun horien artean, bereziki, hau nabarmentzen da: GGKEek lantzen eta eskaintzen dituzten materialak eta ekintzak ez direla ikastetxeetako ohiko curriculumetara moldatzen.

Lan batzorde hori sortzeko, beharrezkoa da:

- Hezkuntza Sailak GHrekiko ildo argiak zehaztea, GH berritzeguneen lanerako ildo bihurtu dadin;
- eragile guztiek —ikastetxeak, berritzeguneak eta GGKEak— koordinazio lanak beren eguneroko lanean barnera ditzatela. Horretarako; dirulaguntzak ematen dituzten erakundeek koordinazio hori lanaren parte bat dela onartu behar dute;
- GGKEek EAEko GGKEen Koordinakundearen talde operatiboetan parte har dezatela. Izan ere, talde horiek biltzeko eta elkarlanean aritzeko gunea dira, jada eratutako koordinazio egitura eta eskarmentuduna. Horrela, GGKE bakoitza bere aldetik ez aritzea lortuko da.



Batzorde horrek bere gain har ditzakeen zeregin nagusien artean, hauek nabarmentzen dira:

- Helburuak, espero diren emaitzak, edukiak eta metodologiak eztabaidatzea, hausnartzea eta adostea, hezkuntza eredu pedagogiko horretatik bideratzeko;
- ikuspegi horren bidez bultzatutako prozesuak ebaluatzea —espero diren emaitzak— eta bizitako esperientziak sistematizatzea —jarduteak kritikoki ulertzea;
- jada sortuta dauden testu ofizialak berrikustea, baita etorkizunean egiten direnak ere, horiek guztiak GHren ikuspegira molda daitezen.

- Argitaletxeetako langileek GHri buruzko prestakuntza jaso dezatela erraztea, GH hezkuntzarekiko jarrera bat dela ulertzeko, eta ez Hegoaldeko herrialdeei buruzko eduki zehatzak noizbehinka lantzea soilik.

## 7. Hezkuntzaren esparru guztiak (formala, ez-formala eta informala) elkarrekin harremanetan jartzea

Gero eta gehiago, GH osoko eredu pedagogikotzat hartzen da, eta ez hainbeste Iparraldearen eta Hegoaldearen problematikari buruzko eduki zehatzat. Ikuspegi hori ulertzeko modu horrekin, ezinbestekoa da pertsonen eta taldeen prestakuntzan parte hartzen duten eragile guztien artean hezkuntza koherentzia bat egotea. Horretarako, beharrezkotzat jotzen da hezkuntzaren hiru dimentsioen arteko elkarlan zuzena, elkarguneen bidez, eztabaidatzeko, hausnartzeko eta erabakitzeko:

- Formala: hezkuntza arautua —eskolak, institutuak, lanbide heziketarako ikastetxeak, unibertsitateak—.
- Ez formala: hiritarrek antolatutako elkarteak —gurasoen eta auzokide elkarteak, aisialdi klubak, etab—.
- Informala: familiak, komunikabideak, etab.

Elkarlan hori errazteko, eragile guztiek gainerako eragileak kontuan hartu behar dituzte beren jardueren plangintza egiteko. Lan hori sare moduan gauzatzeko, badira nabarmentzen diren zenbait gai. Horien artean, hau da aipagarriena: GGKEek, ikastetxeek eta Berritzeguneek GHri buruz egiten dituzten proiektuetan familiak eragile gisa barneratu behar dituzte.

# Kapitulu 5. Ondorioak

*Espainiako Estatuan Garapenerako Hezkuntzari buruzko Zero Informea. Eztabaidatzeko Proposamen bat* (Hegoa, 1996) gai horri buruz egindako sakoneko lehen ikerlana da. Ikerlan hori argitaratu eta 8 urte geroago, aurrerapen esanguratsua ikusten da GHk hezkuntza sisteman lortu duen integrazioan eta jorratzeko moduan. Halere, garai hartan jada agerian jarritako zailtasun eta erronka asko oraindik ez dira desagertu. Hauek, esaterako:

- GH eredu pedagogiko gisa hezkuntza sisteman sartzeko kezka eta interesa asko areagotu da. Izan ere, GGKEek ikastetxeetan gero eta partehartze handiagoa dute. Gainera, hezkuntza komunitateak gero eta gehiago dihardu hezkuntza ikuspegi hori garatzearen alde lanean.
- Halere, ikastetxeetan egiten diren ekimen gehienak oso noizbehinkakoak dira. Sarritan, ikasgelan GHrekin zerikusia duten gaiak oso era sakabanatuan lantzen dira: gutxitan osatzen dute mailakako programa sistematiko bat —epe luzera. Horren haritik, bada egun nagusitzen ari den ideia bat: GHk noizbehinkakoa etengabekoarekin lotu behar du, lehenengo hori bigarrenaren osagai bat izan dadin. Beraz, ideia hori eta errealitatea ez datoz bat—.
- GH ez da zenbait gai lantzea edo azpimarratzea bakarrik; aldiz, eta bereziki, irakasteko eta ikasteko modu bat da. Eredu horretan, gauzak nola egiten diren garrantzitsua bada ere —kooperazio metodologiak—, garrantzitsuak dira halaber zer ikasten den —ezaguera kritikoa—, eta, batez, ere, zertarako ikasten den ere —gizarte eraldaketa— oso garrantzitsua da.
- GHk hainbat dimentsio ditu, eta horiek berariazko programen bidez eta programa osagarrien bidez gara daitezke. Honako gai hauek, adibidez, osagarriak dira, eta, elkarrekin landu behar dira: hezkidetza, kulturartekotasunaren tratamendua, bake hezkuntza, ingurumen hezkuntza, etab. Beraz, gai horiek —baita diziplinak ere— ez dira aparteko gaitzat hartu behar, prozesu beraren dimentsiotzat baizik.
- Orain arte irakasleak informazio eta eduki itxien igorle izan badira, gaur egun bideratzaile bihurtzen ari dira. Parte hartzeko metodologiaren bidez, bilatzeko, analisiak egiteko eta kritikoki pentsatzeko prozesuetara bideratzen dituzte ikasleak.

• GHrekin —balio hezkuntzarekin— konpromisoa hartu duten irakasleek zenbait alderdi teorikori buruzko aholkularitza eskatzeaz gain —zer da hezkuntza mota hori? Zer paradigmatan oinarritzen da?—, eta batez ere, alderdi praktikoei buruzko aholkularitza behar dute —Nola moldatuko ditut ekintzak ikasgelako errealitatera? Nola landuko dut?—.

• GH eskolan lantzea, irakasleen kezken, motibazioen eta esperientzien baitan dago, neurri handi batean. Horrek guztiak banakako militantziari lotutako gune bat sortzen du, eta, beraz, GH baldintzatuta geratzen da. Egoera hori gainditu egin beharko litzateke. Horren haritik, azpimarratu egin behar da eragile desberdinen eta ezaugarri berdinak dituzten eragileen arteko koordinazioak aukera eman duela esperientziak trukatzeko, ezaguera eraikitzeko, elkarrekin ikasteko eta ahaleginak optimizatzeko. Gainera, talde egonkorrak sortzeak parte hartzeko eta konpromisoak hartzeko bideak ekartzen ditu: horrek guztiak GHren prozesuen jarraipena ziurtatzen du, baita esperientzia hedatzea ere.

• Irakasleen prestakuntza bezain garrantzitsua da prestakuntza horren katea puskatu ez dadin ziurtatzea. Sarriegi, prestakuntzan jasotako informazioa eta ezaguera pertsona bakar baten eskuetan geratzen da: prestakuntza jaso duen pertsonaren eskuetan, alegia. Izan ere, ikastetxean ez da informazio horren berri ematen. Erronka, beraz, ez da ikastaro eta mintegi gehiago eskaintzea, ezagutarazte hori erraztea baizik.

• Gizarteak Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanei buruz eta tokian tokikoaren eta mundukoaren elkarreraginari buruz aurkezten dituen ereduak ez dira beti positiboak izaten. Sarritan, GHren bidez azaltzen denaren aurkakoa aurkezten da. Horrexegatik, oso garrantzitsua da eskola erakunde osoan tratamendu koherente eta integral bati jarraitzea —esparru guztietan eta eskola erakunde osoan—, ezkutuko curriculumak eragina duen guneak ezabatzeko.

• Proposamen interesgarrienak ohiko curriculumarekin zuzeneko harremana duten horiek dira, ikasleen errealitatera eta ikasgelako testuingurura gehien hurbiltzen direna. Ziurtasunak baino, zalantzak eta galderak lantzen dira, eta horiek errealitatea hobeto ulertzeko aukera ematen dute. Gai horrekin jarraituz, adibide egokia izan liteke komunikabideen ikuspegi kritikoa sustatzea. Izan ere, komunikabideek eragin handia dute ikasleengan, eta gutxitan eskaintzen dituzte interpretazio konplexuak, edo, maiz, errealitatearekin bat datozenak.

• Proposamen horiek irakasleen jardueretara moldatu ahal izateko, proposamenak jardutetik bertatik sortzea da egokia. Horrela, eguneroko programazioa egiteko eta curriculuma garatzeko sare sendoa sor daiteke. Sarriegi, GGKEek bidalita ikastetxeetara heltzen diren ekimenak irakasleen komunitatetik kanpo pentsatutakoak dira.

• Gero eta sarriago baliabideak euskaraz nahiz gaztelaniaz aurki daitezke; halere, proportzioa oraindik ere ez dago orekatuta. Ez dugu ahaztu behar gure hizkuntza testuingurua nolakoa den; izan ere, materialak eta ekintzak euskaraz lantzeko aukerarik ez badago, erabilgarritasuna asko murrizten da.

• GHren aldeko eragileek eta finantzaketa iturriek erabiltzen dituzten baliabideak oso mugatuak

